



## Aurre hartzeko

Kontsumoen prebentzioa sustatzeko ihes gela eta ikastaroa antolatu dituzte / 8-9



**Tomas Ganboa**  
Ganboa ezkil  
jotzailea omenduko  
dute igandean  
Arruazun / 7

**Sexu indarkeriaren  
kontrako  
sentsibilizazioak  
udan ez du  
etenik izanen / 5**

**Etxarri Aranazko  
plazak ekoizle eta  
artisau azoka  
hartuko du  
igande goizean / 14**

**Alfabetatze eta  
gaikuntza  
digitaleko  
ikastaroak  
antolatu dituzte / 7**

**Prentsa bilketaren  
ondoren  
Atakondoakoek  
zelulosa nola sortu  
ikasi dute / 6**

**Altsasu futbol  
taldeak bi igorekin  
itxi du 20/21  
denboraldi biribil eta  
historikoa / 18-19**

**Beietz! talde  
arbizuarra 'Zeltik  
parranda tour'  
kontzertuak  
eskaintzen ari da / 22**



**54,12 metroko disko  
jaurtiketari esker  
Espainiako  
txapeldun handia da  
June Kintana / 17**



Axun Razkin Razkinek hamaika publikazio gordetu izan ditu urte luzez, tartean Urdiaingo festetako egitarauak.

# Paperezko altxorrak

Axun Razkin Razkin lakuntzarrak lau hamarkadetan ehun aldizkari ale baino gehiago gorde ditu Urdiaingo etxean. Baita herriko festetako egitarauak ere. Orain, "penarekin" artxibategi batera eraman dituelako

## Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

*Punto y hora de Euskal Herria* 1976. urtean argitaratzen hasi zen ezker abertzaleari lotutako astekari bat zen. Politika gaiak lantzen zituen gehien bat, gaztelaniaz eta euskaraz. 1979. urtean Iruñeko bulegoa itxi behar izan zuten, eta aldizkariaren bigarren garaia Donostian hasi zuten. Axun Razkin Razkin duela 45 bat urte Lakuntzatik Urdiainera bizitzera joan zen, eta *Punto y hora de Euskal Herria* aldizkarian harpidetu zen. Etxean jasotzen zuen, eta iristen ziren aldizkariak gordetzen hasi zen. "Pena ematen dit eta noizbait berriz begiratze-ko. Gauzaren arabera, jakina. Geroz eta gehiago botatzen dut". *Punto y hora* garai horietan "berezia" zela esan du, "lehenengo egoera ongi islatzen zuen", eta "desagertzea" pena ematen zion. Horregatik gordetzen zituen.

Aldizkari politikoa ez da gorde izan duen bakarra: **GUAIXE** aldizkaria 0. zenbakitik, Zeruko *Argia*, *Goiz Argi* eta *Eginek* argitaratutako 2000 hiztegia. Urdiaingo eta Lakuntzako festetako egitarauak gorde ditu ere, baita *Aiaupenarik* 1990ko hamarkadetako lehenengo urtetan Lakuntzan argitaratutako aldizkari zenbait ale gorde ditu ere. Elizan banatutako orriak eta kanten letra baten bat badago ere bilduman. "Holako albiste interesgarriak ateratzen zirenean edo gertuko pertsonak agertzen zirenean *Egunkariako* artikulua moztu eta gordetzen nituen ere".

## Apala

40 urtez armairuko apal batean gordetzen zituen aleak. Ez ditu altxor bat bezala gorde, baina "zerbait berezia" zen, eta bertan ikustea "ilusioa" ematen zion. Askotan botatzea pentsatzen zuen, baina azkenean ez zuen egiten. Orain arte. "Beste batzuek beste gauza batzuk gordetzen dituzte, eta nik hori". Guztira, 100 baino gehiago aldizkari, publikazio, festetako egitarau eta eliz orri ditu: *Punto y hora de Euskal Herria* aldizkariaren 70 bat ale, **GUAIXE** aldizkariaren 50 bat ale,



**EGOKI**

Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO  
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





## Aldizkariak eta publikazioak

- **Punto y hora de Euskal Herria** (1976-1978) 73 ale
- **GUAIXE aldizkaria** (1994-2000) 55 ale
- **Urdiaingo festetako egitarauak** (1984, 1992, 2003-2019) 14 ale
- **Urdiaingo andramauztuko festak** (2005-2017) 6 ale
- **Lakuntzako festak** (2004-2006) 3 ale
- **Aiaupenanik Lakuntzako aldizkaria** (1992-1996) 6 ale
- **Goiz Argi** (1976) ale bat
- **Zeruko Argia** (1976) ale bat
- **Nafarroa Oinez 1989ko pegatinak**
- **Egin 2000 hiztegia**

1976. urriaren 3ko *Zeruko Argia*, 1976 urteko *Goiz Argi* ale bat, Aiaupenanik Lakuntzako aldizkariaren sei ale, Urdiaingo festetako dozena bat egitarau, baita Lakuntzako festetako pare bat ere. "Den dena ez nuen gordetzen. Ikusi nuenean goraka zihoala utzi nuen". GUAIXE gordetzen hasi zen ere eta aldizkari formatua zuenean gorde izan zuen, "egunkari formatua izan zuen arte". Sakanako "gauzak" zirelako gordetzen hasi zen, baita jende ezaguna ateratzen zelako ere.

Razkinek gorde duen Urdiaingo festetako programa zaharrena 1984. urtekoa da. Ondorengoak berriagoak dira, gehienak 2000. lehenengo hamarkadakoak. Aldizkariekin alderatuta, ez ditu egitarau asko gordetzen, "dozena bat inguru". "Argazkiengatik gorde ditut. Gehien bat jende helduaren argazkiak ateratzen dira". Oroitzapen politikak gordetzen dira egitarau horietan ere, "lehenengo egunean ikusten egon nintzen eta egitarau batean agertzen zirenak dagoeneko hil dira". Urteekin egitarauak "ez dira aldatu", baina sanpedrokoen eta andramauztuko festa txikien artean desberdintasunak ikusten ditu: "San Pedrokoa beti eleganteagoa da. Abuztukoa bi egun izan ohi dira, eta txikiagoa da. Orri ba-

tean sartzen da". Egitarauak etxean uzten dituzte eta noizbait baten bat ez bazuen jasotzen, "ez dut ondoren bilatu. Ez bada iritsi, ez da ezer gertatzen".

### Gorde

"Ez dut horrelakoak gordetzen dituen inor ezagutzen. Bakarren batek agian esan dit gordeta duela ale jakin bat, baina hainbeste nik bezala, ez". Gordetzeko zaletasuna txikitatik datorrela azaldu du Razkinek. "Gure etxera *La Gaceta del Norte* delakoa iristen zen. Ez dakit nola edo zergatik, baina etxez etxe banatzen zuten eta gurera ekartzen zuten. Nire amak gordetzeko ohitura zeukan". Ale horiek, aldiz, desagertu dira, "ez genuen ezer egin". Gazte zenean ohitura berdina hartu zuen, "gogoratzen naiz zerbait interesgarria aurkitzen nuenean gordetzen nuela, eta noizean behin begirada bat botatzen nion". Begiradaxoak luzatu egiten zirela aitortu du Razkinek, izan ere, ikusteko asko zeukan.

Memoria lantzeko ariketa ona da gordetako aldizkariak berrikustea, baita gertuko historia ezagutzeko ere. Aldizkariak begiratu izan dituenean, aldiz, Razkinek ez du ezer berezirik sentitu. Garaiak aldatu direla. "Lehen modu batean bizitzen zen

eta orain beste batera. Ezin dut esan ez hobe ez okerrago".

Garaiak aldatu diren bezala, hedabideak ere aldatu dira. Esaterako, *Punto y hora de Euskal Herria* aldizkariak lantzen zituzten erreportajeak eta gaiak gaur egun ez dira inon aurkitzen. GUAIXEren kasuan ere "lehen herritako euskararen egiten zen eta gustatzen zitzaidan irakurtzea". Sakanako herri bakoitzeko gauzak publikatzen ziren, Satrustegik idazten zuen eta orain lekua "murriztu" dela esan du Razkinek, baina, bestela, ez du aldaketa handirik sumatu. Gainera, gordetako gauzen artean ez du ezer "berezi" gogoratzen. Egunkari formatukoak ez ditu gorde aldizkari formatukoak, "gordetzeko errazagoak dira eta argazkien eta aldizkariaren kalitatea hobea da".

### Garbiketa

"Hainbeste eta hainbeste gorde, garbiketa egiten duzuenean galdetzen diozula zeuri buruari: eta hau zertarako nahi dut". Arroparekin gertatzen den bezala, Razkinek aipatu duenez, aldizkari bildumarekin antzeko gertatu zaio. "Gorde eta gorde, bat-batean bota behar duzula bururatzen zaizula". Dena gordetzearena "lehenengo mentalitate" datorrela esan du. "Gor-

detzeko grina hori, baina gero ez duzu gordetako behar".

Garbiketa egiteko garaia heldu zela erabaki zuen Razkinek. Alde batetik, "pena" ematen zion. Baina "hor zeuden hautsa hartzen". Bota behar zituen, "baina *Diario de Noticias*en asteburutan datorren *On* aldizkarian jartzen zuen horrelako publikazioak izatekotan ez botatzeko, haiek bilatzera etorriko zirela". EuskoDok Dokumentu eta Bibliografien kontserbaziorako elkartearen iragarki bat zen, eta Razkinek deitu zuen. Orain, Urdiainen gordetako aldizkari eta publikazio horiek artxibategian gordeko dituzte. "*Punto y hora* aldizkari nahiko zituztela esan zidaten, baina festetako egitarauak eta elizako orriak, esaterako, oso interesgarriak zirela esan zidaten". Kasu askotan, publikazio horien azkenengoetariko aleak izan daitezke. Eta Urdiainen gordeak zeuden.

Razkinek ez du bere burua bildumazale bezala ikusten, izan ere, ez du beste ezer bildu edo gorde. Baina garbiketa egiten hasi dela, "konturatzen zara 45 urtetan zenbat gauza gordetzen diren...". Aldizkariak "leku handia" utziko dute armairuko apaletan, baina ez ditu faltan botako. Agian, pixka bat.

## ALDIZKARIAK EZ DITU ALT XOR BAT BEZALA GORDE, BAINA "ZERBAIT BEREZIA" ZEN

## "URDIAINGO FESTETAKO EGITARAU ZAHARRENA 1984KO DA, ETA "DOZENA BAT" GORDE DITU

## "EZ DUT INOR EZAGUTZEN NIK BEZALA ALDIZKARIAK GODERTZEN DITUENIK"

## "BAT-BATEAN BOTATZEA PENTSATZEN DUZU, BAINA PENA EMATEN DIZU"



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Hamar urteko bidea

Hamar urte joan dira iritzi zutabe hau idazten hasi nintzenetik. Hamar urte luze, inguruko gertakari eta erronkek sentiarazten zizkidaten gogoetak partekatzen. Pentsa liteke irakurle zarenenoi zuzendutako ideia zurrunbilotsu soilak izan direla, egunerokotasunaren zorabioak eragindako iritzi nahaspilatua. Nahaspila horrek, ordea, pentsamenduak antolatzen eta emozioak bere tokian kokatzen lagundu didala aitortu beharra dut. Aberasgarri egin zait buruan bueltak narabilena paperean ikustea. Astekari hau irakurtzen duten hainbat eta hainbat pertsonak egin dizkidaten barrenetik ateratako iruzkin inprobisatuek ustekabe harrapatu naute askotan. Harridura sorrarazi didate, hizkuntza idatziak duen irisgarritasun harrigarriak eta bueltan dakartzen gutxien esperotako sariek.

Sarritan biluzte sentsazioa izan arren, hura gaintzeko bidea izan da iritzi zutabe hau niretzat. Gordeta ditut gogoeta guztiak, altxor moduan. Denbora gelditu eta argazki bat atera izan banu bezala ikusten ditut 1500 karaktere inguruko

## MILA ESKER, IRAKURLE, ZURE ARRETA ESKAINI IZAN DIDAZULAKO

eta akatsak identifikatzen jakiteko, haietaz lotsatu gabe, ikasten jarraitzen dugun seinale direla ohartzeko. Iritziak kontrajarriz, heldutasun baten isla ikusi eta sentitzeko. Ongi egindako lanaren harrotasuna sentitzeko. Mila esker, irakurle, zure arreta eskaini izan didazulako. Mila esker, merezi izan duelako!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Bidali gabeko eskutitza

**SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA**

Kaixo, seme:

Ez nizun esan nahi izan orduan, baina geroago ez nuen aukerarik izan. Amok dena dakigulako gure seme-alabez. Eman zenidan muxu hartan jakin nuen Europara zindoazela.

Ni engainatzen saiatu zinen, egun batzuetarako hirira lan bila zindoazela esanez, baina... muxu hark agerian utzi zintuen. Ez ninduzun sekula horrela musukatu: ixil-ixilik hurbildu zinen nigana; lurrera begira, gu bion arteko begiraden topaketa saihestuz, ezingo baitzenuen elkarri begiratzea jasan.

Ulertu nuen, amok seme-alabak ulertzen ditugulako, bazitekeela

sekula elkar gehiago ez ikustea.

Elkar besarkatu genuen; bizkor estutu ninduzun zure beso artean, zurekin eraman nahiko baninduzu bezala. Sumatu nuen, amok dena sumatzen dugulako seme-alabengan, ez zuela inongo zentzurik izango elkarrekin abiatzeak.

Pentsatu nuen, amok seme-alabengan beti pentsatzen dugulako, agian ez genuela inoiz gehiago elkar sentituko. Argitasun harrigarri batekin birbizitzen ditut elkar besarkaturik bizi izan genituen segundo iheskor haiek.

Oroitzen dut zure argitasun itzalia, zure bihotzaren taupada eroa... ateratzeaz bazenu bezala.

Oroitzen dut, amok den dena oroitzen dugulako seme-alabez, sentimentalismo eza hura agurrean. Nola adierazi nahi zenion zeure buruari gizona zinela jada.

Ze tuntuna: non dago idatzirik gizon bat ezin dela "erori" bere amaren aurrean? Nork esan du horrek gizon bezala gutxiago egiten duela?

Oroitzen dut zure ahoaren usain izoztua banatzean. Zure ezpainen tentsioa ni muxukatzean. Agurraren ezpainak, betira artekoak, inoiz artekoak. Eta desagertu zinen... eta orain, begietan izua dudala, eskuak negarretan, umezurtz diren hitz hauek idazten dizkizut.

Gutun azal baten babesik gabeko hitz umezurtzak kale gorrian uzten ditut. Seme, non zaude? Zer da zutaz? Mesedez, egin zerbait, esan zerbait. Itotzen naiz, hiltzen.....

guztionatik jakina baita amak hiltzen gabela seme-alabengatik.

\*Egiazko idatzia. Fernando García Arevaloren *Itsasartearen Zabalenean* erakusketarako itzulia. Eskerririk asko, Fernando.

## GUTUNA

### Ibilian, etxerako bidean

**MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA ETA JONE GALARTZA LARRIOTZ**

SARE NAFARROA

Iruñeko Zitadela eraikitzea agindu zuen Felipe II.a errege espainolak XVI. mendean. Eraikin militarren helburua: hiria zigortzea.

Bertan egingo du Sarek manifestazioa uztailearen hiruan.

Presoak zigortzea eta Euskal Herriarekiko atxikimendua apalaraztea zituen helburu 1988an abian jarri zuten dispersio politikak. Hogeita hamabost preso hil dira espetxean; azkena, Igor González. Urruneko gotorlekuetan atxikita, zigor erantsia ezarri zieten senideei

ere: kilometro asko errepidean, neke fisiko eta mentala, diru xahuketa eta heriotza. Natividad Junco da, gaur arte, hamasei izeneko zerrendako azkena.

Aldatzen ari da dispersioa. Egoera berria pertsona askoren esfortzuarri esker lortu da: Euskal Herriko hiritar, alderdi politiko, sindikatu, hainbat eta hainbat herri eragile, instituzio eta, noski, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideei esker eta hainbat biktimaren esfortzuarri esker.

Atzean utzi nahi ditugu legea eskubideak urratzeko erabiltzen ziren garaiak. Atzean utzi aurrera egin nahi dugulako, aurrera egin ahal izateko... Presoak etxean izan arte. Lehenik eta behin, 70 urtetik gorakoak, salbuespeneko legedipean (7/2003 eta 7/2014)

zigortutakoak, gaixotasunak dituztenak... denak etxerako bidean jarri nahi ditugu.

1808an D'Armagnac general frantsesak Zitadelaren defentsa apurtzea lortu zuen. Bere agindupeko soldaduak elur malutekin jolasteko aitzakiarekin hurbildu ziren, eta Zitadelako zaindariak ezustean harrapatzeko helburua zuten. Geuk ere elurtea aprobetxatu behar dugu espetxe politikaren gotorlekua apurtzeko. Gaur egungo baldintza politikoak, agian, bihar aldatuko direlako.

Gotorleku eta harresi politiketatik gizatasun eta bizikidetzaren espetxe politikarako bidea ibili nahi baduzue, presoak etxerako bidean jarri nahi badituzue, gonbidatuta zaudete uztailearen 3ko manifestaziora.

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus  
Ainhora Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Igerilekuak eta kultur ekitaldiak baliatuko dituzte indarkeria sexistarik gabeko informazio guneak jartzeko. ARTXIBOA

# Sexu indarkeriaren kontra sentsibilizatzen

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak igerilekuak eta kultur ekitaldiak baliatuko ditu indarkeria sexistarik gabeko informazio guneak jartzeko. Mank-eko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean segitzen dute

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak igerilekuak eta kultur ekitaldiak baliatuko ditu indarkeria sexistarik gabeko informazio guneak jartzeko. Mank-eko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean segitzen dute

Aurtengo udan ere sexu indarkeriaren kontrako mezuak zabalduko dira ibarrean. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako estatu itunaren baitan, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak aisialdi guneetan sentsibilizazioa landuko du. Txandaka, sexu indarkeriarik gabeko informazio guneak jarriko dituzte ibarreko igerilekuetan eta kultur ekitaldietan. Emagin elkarteko bi aditu egonen dira gunea dinamizatzen, eta hara joaten direnei aholkularitza eman eta zalantzak eta kezak argituko dizkiete.

Aholkularien bidez, emakumezkoak eta oro har herritarrak indarkeria sexistaz kontzientziatu nahi ditu Berdintasun Zerbitzuak. Aldi berean, gune horien bidez, emakumezkoek festetan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jaso nahi dira. Informazio espazio horiek beraiek babes eta elkartasun gunea irudikatu nahi dute eta indarkeriari aurre egiteko bitartekoak erraztuko dituen erreferentzia izan nahi dute. Gainera, erasotzaile izan daitezkeen dena libre ez dela eta erasoak dauden kasuetan erantzuna izango dutela ohartarazteko balioko dute batean eta bestean egonen diren informazio guneek. Erasoen aurrean, emakumezkoek beren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabetzeko bitartekoak eta lan tresnak eskainiko dira gune horietan. Eta, azkenik, maitasun

erromantikoaren eredu zalantzan jarri eta plazerean oinarritutako harreman osasuntsuak bultzatzea dute helburu.

Eraso sexistarik gabeko gabeko guneetan honakoak izanen dira eskuragai: Kontzientzia astindu! esku-orriak, iritzia emateko arbelak, nork bere txapa egiteko makina eta nork bere konpromisoa adierazteko pegatinak. Bestalde, Mank-eko Berdintasun Zerbitzuak jarraipena emanen dio festetako sexu erasoen kontrako Jarain kanpainari. Herri bakoitzak udaletxean edo herriko leku esanguratsuetan jartzeko lanak eta kartelak izanen ditu.

## Elkarlanean

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek emakumeen kontrako indarkeriaren aurka elkarlanean segitzen dute, bi erakundeek horretarako ibarreko protokoloa sustatu baitzuten. Horregatik, hainbat egitasmo elkarrekin garatuko dituzte. Esaterako, protokoloaren laburpena duten esku-orriak Sakanako herri guztietan banatuko dituzte. Bestetik, Sakanako Lurralde Koordinaziorako Mahaia osatzen dutenen parte hartze prozesu baten bidez, informatika tresna bat diseinatu eta kontrastatuko dute. Sakanako udaletan emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako jardunaren jarraipena errazteko item eta aldagai homogeneousak jasoko ditu tresna horrek.

Horrekin batera, bi Berdintasun Zerbitzuek hiru arlotan prestakuntza saioak sustatuko dituzte. Alde batetik, herritarrak gonbidatuko dituzte emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako prestakuntza saioetara. Deialdia jasoko dute, kirol, kultur eta bestelako izaera duten elkarteek. Prestakuntza saio horiek, gainera, edozein sakandarri zabalik egonen dira.

Bestetik, Sakanako talde feministekin bi lan saio egitea aurreikusiko dute teknikariek. Lan saio horietan gaur egun dauden erakunde baliabideen berri eman zaie, baita koordinazio protokoloaren nondik norakoak azaldu ere. Horrekin batera, udalen eta instituzioen eta mugimendu feministaren arteko koordinazioa adostu nahi dute, bereziki talde feministetara kasuren bat iristen denean nola jokatu jakiteko. Aldi berean, salaketa publikoa beharrezkoa denetan, hori nola egingen den eta nola koordinatuko den adostu nahi dute.

Prestakuntza saioa jaso dutenak ibarreko hautetsiak dira. Lau saio egin dituzte garagartzaroan. Saio horietan, besteak beste, honakoak landu dituzte: emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako araudia zein den, Nafarroako eta Sakanako datuen berri eman, protokoloaren nondik norakoak ezagutarazi eta herrian kasu bat egonez gero, udalaren jokaerak zein izan behar duen.

Goizero 10:00-12:00  
**EGUN ON SAKANA**  
Errepikapena 14:00-16:00

08:30-10:00 Nafarroako albisteak  
Euskalerrria irratia eskutik  
10:00 Pentsa eta eguraldia  
10:15 Bateti bestia  
10:20 Eguneko albisteak  
10:45 Hizketan  
11:05 Sarea: Aralar eta  
Karrape irratikoekin  
11:55 Agurra

107.3 FM  
**beleixe**

Online  
**guaixe.eus**

948 567 074  
irratia@beleixe.eus

# Prentsaren papera bero eraginkortasunean

Atakondoa eskolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako 72 ikaslek prentsa papera isolatzaile bihurtzeko nola eraldatzen duten ezagutzeko aukera izan dute. Ikastetxean egunkari bilketa egin ondoren, hura eraldatu eta zelulosa ikastetxean jarriko dute

## IRURTZUN

Energia eraginkortasuna hobetzeko eta gastuak murrizteko asmoz, Irurtzango Udalak ikastetxean auditoria bat egin zuen. Hari jarraiki honako lanak egin ditu: luminariak aldatu, argindar instalazioa eta koadroak berritu, korrante hargune berria jarri eta frontoiko teilatuan plaka fotovoltaiakoak jarri. Udan berogailua sektoreka banatzeko lanak egingen ditu, baita bero isolamendua hobetzekoak ere. Horrela, ikastetxetik ihes egiten duen bero kopurua murriztu nahi dute.

Azken horretarako zelulosa erabiliko dute, paretetan eta teilatuetan sartuz. Horregatik, Atakondoa ikas komunitate guztia ikasturteko azken asteak egunkariak biltzen aritu da. 190.000 egunkari biltzea zuten helburu. Hasieratik zekiten helburu handi samarra zela. Iñigo Zamargilea Rivas zuzendariak azaldu duenez, ez zuten lortu paper kopuru hori lortzea, baina hura guztia tratatu behar duen enpresaren bitartez eskuratu dute falta zutena.

## Ikasleak lantegian

Hobekuntza lan bat izan behar zena, pedagogia proiektu bihurtu dute ikastetxeak eta Irurtzango Udalak, "lankidetzak hezkun-



Zelulosa bihurtuko direnen artean Guaixeko aleak ere badaude. UTZITAKOIA

tza landu dezakeela", esan du Aitor Larraza Carrera alkateak. Komunitateko kideek eta irurtzundar batzuek egunkariak eraman dituzte eskolara. Materialak, prentsa paperak kasu honetan, bigarren bizitza bat izan dezakeela ikasi dute ikasleek. Gainera, Lehen Hezkuntzako 6. mailako A eta D ereduak bina taldek birziklatze hori nola egiten den ikasteko aukera izan zuten.

Irurtzango Udalak jarritako autobusetan 72 ikasleak Beriaien dagoen lantegi batera joan

ziren. Atakondoa jasotako prentsa papera guztia han bihurtuko dute zelulosa, geroago Atakondoa jartzeko. COVID-19 gaitzari aurre egiteko protokoloak kontutan hartuta, ikasleak taldeka sartu ziren enpresan. Barruan zeuden ikasleek prozesua bertatik bertara ikusten zuten bitartean, kanpoan zeudenak pedagogia saioa jaso zuten. Horren guztiaren lekuko Irurtzango Udalak kontratatutako irudigileak jaso zuen, egitasmoaren inguruko dokumentala egin nahi baitu udalak.



3 eta 12 urte arteko ikasleek zer irakurri badute. UTZITAKOIA

## Eskolako liburutegia liburuz hornitu dute

Liburutegi publikorik ez dagoenez, ikastetxekoa da haurren artean irakurketa sustatzeko bidea

## UHARTE ARAKIL

San Migel eskolako Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloak hartzen ditu. Ikastetxeak liburutegia du. Baina irakasle eta gurasoak jabetuak zeuden titulu gehienak gatzelaniaz zirela. Egoera zuzentzeko, guraso elkarteak joan den

urtean euskarazko liburu mordo bat erosi zuen. Erosketak Uhar-te Arakilgo Udalararen 2.500 euroko dirulaguntza izan du. Liburu eskaintza zabaldu ondoren, irakasleak liburu sorta bat klasera eraman dute, ikasleek gustukoak aukeratu eta etxera eramateko.

## Zuntz optikoa haur eskolara

Altsasuko Udalak udaletxean eta Txirinbulo udal haur eskolan zuntz optikoa jarri du. Horrela, bi eraikin publikoek Internetarako gaitasun handiko lotura azkarra dute. Altsasuko Udalak 3.938,57 euroko (BEZa barne) inbertsioa egin du konexio horiek ezartzeko. Hori egin ahal izateko, Nafarroako Gobernuak emandako 2.560,07 euroko dirulaguntza jaso du.



ARTXIBOA

## Aralarko aingerua hurrei aurkezteko ekitaldirik ez aurten

COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik, bigarren urtez bertan behera uztea erabaki dute

## SAKANA

Gauzak ongi, Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia dagoeneko prestatzen legoke Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena. Baina COVID-19ak eragindako pandemiagatik aurkezpena ber-

tan behera uztea erabaki du kofradiak. Jose Mari Ustarroz presidenteak azaldu duenez, "espero dugu heldu den urterako dena kontrolpean egongo dela eta inongo arazorik gabe egingo dugula garilaren 17an. Haur guz-

tiak onartuko dira, adinari begiratu gabe".

Bigarren urtez jarraian bertan behera gelditu da Aralarko aingerua hurrei aurkezteko ekitaldia, garilaren 18rako aurreikusia zegoena. Egiten den hurrengo edizioa 17.a izan da, eta orain arte milatik gora haur egin dira Aralarko aingeruaren lagun. Hainbat arrazoiengatik familia ugarik lotura berezia dute Aralarko santutegiarekin. Elizak araudia aldatu zuen, eta, gaur egun, bataioak norberaren



Aralarko aingerua hurrekin. ARTXIBOA

herrian egin behar dira. Horrek sor zezakeen etena bideratzeko asmoz, Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia haurren aurkezpen ekitaldia antolatzen hasi zen. Ekitaldia igandeko meza nagusian egiten da. Haurrak aingeruari aurkeztu, hurrei hura gurtzeko aukera ematen zaie, eta, akaberan, haurraren izen-abizena duen pergaminoa jasotzen dute. Hartan jasoak galditzen da txikia Aralarko aingeruaren lagun dela, eta haren bizi guztirako babesa eskatzen da.



Tomas Ganboa Ganboa. ARTXIBOA

## Ganboa ezkil jotzailea omenduko dute Arruazun

Ezkiak jotzen urteak eman ditu Tomas Ganboa Ganboak. Ezkila jotze txapelketak irabazitakoa ere bada. Herriko ondare hori bizirik mantentzeagatik Arruazuko Udalak ezkila jolea omendu egingen du igandean. Hasteko, 12:30ean, elizan Ganboari buruzko dokumentala emanen dute. Arbazuarrak 2017ko irailean utzi zion ezkiak jotzeari, eta azken egun hartan grabatutako irudiak jasotzen dira dokumentalean. Baita Ganboari berari egindako elkarrizketa ere. Amaia Erdozia eta Oskar Corroza etxarriarrek egin dute ikus-entzunekoa. 13:00ak aldera, bizpahiru ezkila jolek errepiken erakustaldia egingen dute. Eta ezkila kontzertuaren ondoren Ganboa omenduko dute.



Irañetan informatikan trebatzeko egindako ikastaroa. ARTXIBOA

# Alfabetatze eta gaikuntza digitaleko ikastaroak

Irurtzunen, Etxarri Aranatzeko eta Altsasun izanen dira garila eta iraila artean. Foru administrazioaren plan baten lehen fasea da

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak Alfabetatze Digitala Planaren lehen fasea abian jarri du. Nafarroako 31 udalerritan 39 ikastaro egingen da udan. Ikastaroak hartuko dituzten herrien artean Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasu daude. Ikastaro horiek ezagutza digitalik ez duten pertsoneri zuzenduta daude. Horregatik, prestakuntza presentziala

## Ikastaroak

Herria	Ikastaro mota	Datak
Altsasu	Alfabetizazioa	Agorrilaren 3, 5, 10, 12, 17 eta 19
Etxarri A.	Alfabetizazioa	Garilaren 13, 15, 20, 22, 27 eta 29
Irurtzun	Alfabetizazioa	Irailaren 27tik lastailaren 1era
Altsasu	Gaitzea	Garilaren 12tik 16ra
Irurtzun	Gaitzea	Irailaren 20tik 24ra

izanen da, eta 12 ordu iraungo du ikastaro bakoitzak.

Oinarrizko mailako trebakuntza digitaleko 9 ikastaro ere emango dira, 25 ordukoak, gutxieneko ezagutza digitalak dituzten eta hainbat baliabide digitalen bidez prestatzen jarraitzeko gaitasun handiagoa behar duten pertsonendako. Ikastaro guztiak udalen eta oinarrizko gizarte zerbitzuen lankidetzarekin emanen dira, eta interesa dutenek bertara jo dezakete beren plaza erreserbatzeko.

Juan Cruz Cigudosa Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren arabera, 2020an egindako diagnostikoak "biztanleriaren kolektibo edo sektore jakin batzuek duten ezagutza eta trebetasun digitalen falta erakutsi zuen. 2030erako Nafarroako Estrategia Digitalak ezartzen dituen ildoei jarraituz, Telekomunikazio eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jo du herritarrei tresna digitalean sartzeko eta horiek erabiltzeko aukera berdintasuna eskainiko dieten ekintzak egitea, ezagutzei dagokienez".

Nafar Lansarek, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak joan den urtean egindakoaren antzeko Txoke Plan bat egingo da, baina, kasu honetan, aisialdirako, informazioa bilatzeko, erosketak egiteko edo parte hartzeko trebetasun digitalak hobetu behar dituzten kolektiboek zuzenduta.

UZTAILAREN 30EAN  
**UDAKO BEREZIA**  
 ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

PUBLI@GUAIXE.EUS | 661 523 245 | 948 564 275 (1 LUZAPENA)



UTZITAKOIA

## Euskarak bidea izan dezan

Euskalgintzaren Kontseiluaren zati den Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 20 urte bete ditu. Urteetan haren zuzendaria Garbiñe Petriati Ijurra arbizuarra izan ondoren, hari lekukoa Agurne Gaubeka Erauskinek hartu zion. Esan duenez, duela 20 urte salatzen diren

gauza berak salatzen dira oraindik. Nafarroako lanpostu publikoetan euskara ezagutzeko derrigortasun eza eta ondorioz, herritarren eskubideak ez bermatzea salatu du. Gaur, 18.30ean, Iruñeko Baluarteko plazatik manifestazioa abiatuko da.

# Aste honetan 1.830 txerto jarri dituzte

30 eta 39 urte bitarteko sakandarrek jaso zuten atzo. Eta Burunda mendebaldeko 45 eta 49 urte artekoak bigarren dosiarekin ziztatu zituzten herenegun. Aurreko hilabetean 57 positibo izan ziren Sakanan, pandemia hasieratik 2.482, %12,25

### SAKANA

Osasunbideak COVID-19 gaitzaren kontrako 53.051 txerto jarriko ditu aste honetan. Asteburuan hasi ziren 30 eta 39 urte arteko txertoa jartzen, eta talde horretako txertaketak astean zehar segida izan du. Gainera, aurrera egin da lehenengo dosiak bukatzeko 40 eta 49 urte arteko taldean, baita jarraibidea ixteko ere, bai talde horretan, bai 50 urtetik gorakoetan.

Altsasuko Burunda pilotalekua herenegun eta atzo txertaketa gune bihurtu zen. Asteazkenean Altsasuko, Olatzagutiko eta Zioridiko 45 eta 49 urte arteko 630 herritarrek txertoaren bigarren dosia hartu zuten. Atzo, berriz, Irurtzungo kiroldegitik eta Altsasuko frontoitik 30 eta 39 urte arteko Sakanako hiru osasun eskualdeetako eta Leitzako 1.200 herritar pasa ziren txertoaren aurreko dosia jasotzera. Bi egunetan Pfizer txertoa jarri dute Osasunbideko langileek.



COVIDaren kontra ziztaten.

Osasun Departamentuak gogorarazi duenez, jada ez da beharrezkoa SMS bat jasotzea txertoa hartzeko hitzordua kudeatzeko. Beren dosia jasotzeko aurrez kontaktatu ez diren 30 urtetik gorako guztiek txertoaren data

online aukera dezakete [www.citasalud.navarra.es](http://www.citasalud.navarra.es) webgunearen bidez. Hitzordua Osasuneko Karpeta Pertsonalaren bidez egin daiteke, aktibatuta edukiz gero, edo web bidezko hitzorduaren bidez, osasun txartelaren zenbakiarekin eta jaiotze datarekin. Bestela, telefonoz ere eskuratu daiteke hitzordua, 948 370 130 telefono zenbakira hots eginez.

Bestetik, Osasunbideak COVID-19 gaitzaren 57 positibo zenbatu zituen garagartzaroan Sakanan. Gaixoak herri horrela banatu dira: Uhartea Arakil 18, Altsasun 17, Etxarri Aranatz 10, Lakuntza 9 eta Arbizun, Bakaikun eta Olatzagutia bana. Urte hasieratik COVID-19ak sakandar gutxien gaixotu dituen hilabetea izan da garagartzaroa; izan ere, ilbeltzean 113 izan ziren, otsailean 148, martxoan 170, apirilean 568 eta maiatzean 256. Aurtengo 1.312 positiboetako joan den urteko 1.170k batuz gero, guztira 2.482 sakandarrek pasa dute COVID-19a.



Gozamenez sariak. ARTXIBOA

## Gazteek uda gozamenaz bizitzeko eskaintza

Ohiko ur festarik ez da antolatuko. Gazteendako bi emanaldi antolatu dira Altsasun

### SAKANA

Gozamenez programak udarako ur festa goxoak eskaintzen dizkie gazteei. Igerilekuan izaten dira gazte topaketa horiek eta haien ardatz nagusietako kontaktua da. Baina COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik, aurten ez da ur festa goxorik izanen. Izan ere, gaixotasuna ez zabaltzeko osasun agintariek emandako segurtasun neurrien artean pertsonen artean distantzia mantentzearena dago.

Horren ordez Sakanako Gozamenaz Batzordeak gazteei zuzendutako bi emanaldi iragarri ditu Altsasun. Aurrena Oihulari Klown taldearen *Hiri dantza* tailerra izanen da. 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Heldu den ostegunean izanen da, 19:00etan, Intxostiapunta gazte gunean. Gozamenaz egitaraua Andoni Mutiloaren *Esnatu naiz* kabaret ikuskizunarekin osatuko da. 14 urtetik gorakoendako emanaldia hilaren 15ean, ostegunean, 20:00etan, Iortia kultur guneko zabalgunean izanen da.

Gazteei sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarria ematea du helburu Gozamenaz programak. Sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean.

### Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakanan hiru dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, eta bakoitzak prebentzio programa du. Josune Zabala Ijurko (Irurtzun), Luci Gonzalez de Pedroso Saez (Etxarri Aranatz) eta Eneka Irizar Martinez (Altsasu) prebentzio teknikariak elkarlanean aritzen dira askotan. Zabalak azaldu duenez, "prebentzio hitzak aurreratzea esan nahi du. Guretako prebentzio estrategia oso garrantzitsua da, osasuntsua den aisialdi alternatiba eskaintzen baita". Teknikariak gaineratu duenez, "aisialdi alternatiba ez dira ekintza hutsak, baizik eta prebentzio edukiak dituen eta osasuntsua den aisialdi eraikitzailea". Ikuspegi hori kontuan izanik, bi eskaintza prestatu dituzte.

### Scape room edo ihes gela

Talde lanean oinarrituta, probak gaintuz, gela batetik ihes egiteko modua aurkitzean datza ihes gela. Gonzalez de Pedrosok azaldu duenez, "ohiko ihes gela da, baina prebentzioa du gaitzat. Zabalak esan duenez, "gela itxitik ateratzeko zenbait gauzez hausnartu edo pentsatu beharko dute. Hor, esaterako, mitoak erabiliko dira. Oso garrantzitsua da mitoak haustea, hortik ateratzeko. Gizartean oso barneratuta dauden mito asko daude. Askotan argi daukagu, horrela entzun dugulako". Gehienbat alkoholaren inguruan aritu beharko dute. "Seguruenik, batek baino gehiagok sorpresak hartuko ditu. Oso erraz erantzungo dituelako zenbati gauza, baina, seguruenik, ongi begiratuta, erantzuna beste bat da. Horretaz konturatzeko nahi dugu, kontzientzia edo kritikoak izatea nahi dugu. Batek baino gehiagok buelta batzuk eman beharko dizkio atara nahi badu. Kasu honetan ideia zaharrek ez baitute balio" ziurtatu du Zabalak.

Irizarrek argitu duenez, ihes gela "gazteei zuzenduta dago. Gazte sentitzen den edozeinek parte hartu dezake. Jende helduak parte hartu nahiko balu, agian, tokiren bat gelditzen bada, ahal izanen du. Printzipioz, zeinek daki zein adinera arte den norbait gaztea edo ez, sentimenduen arabera baldin bada, ezta?" Gonzalez de Pedrosok zehaztu duenez, "txanda bakoitzean seitek bederatzira arteko taldeek parte har dezakete".





Eneka Irizar Martinez, Luci Gonzalez de Pedroso Saez eta Josune Zabala Ijurko prebentzio teknikariak.

# Kontsumoen prebentzio uda

Sakanako prebentzio programek herriz herri ibiliko den scape room-a prestatu dute. Seitik eta bederatzirako taldeetan gelatik ateratzeko korapiloak askatu beharko dituzte. Bestalde, gazteei zuzendutako aurrebegirale ikastaroa antolatu dute

Taldeek gizarte zerbitzuetan eman behar dute izena: Irurtzun aldekoek 605 466 805 edo 948 600 694, Etxarri Aranatz aldekoek 679 534 481 edo 948 460 752 eta Altsasu aldekoek 616 841 995 edo 948 467 662. Hainbat herritan izanen da, bai udan bai udazkenean ere. Zabalak gaineratu duenez, "eskaintza ez dago ino- rendako itxita. Norbaitek bakar- ka izena eman nahi badu, guk ondoren taldeak osatuko ditugu. Garrantzitsua da lehenbailehen izena ematea, guk denbora izateko guztia ongi antolatze- ko, taldeak egiteko eta denek parte hartze- ko aukera izan dezaten". Gonzalez de Pedrosok ziurtatu duenez, parte hartzaileek "oso ongi pasatuko dute. Dudarik gabe. Hori ere gure helburua da, aisialdirako beste aukera bat ematea. Ezin da hori ahaztu. Enigmak izanen dira, elkarrekin jolastu

## Aurten ere ez da Jaibusik izanen

Pandemiak guztia aldatu du. Gonzalez de Pedrosok azaldu duenez, "ikerketen arabera, hainbeste ateratzen ez garenez, kontsumoak jaitsi egin dira. Hala ere, ezin dugu esan arazorik ez dagoenik, ez dagoela kontsumorik". Izan ere, teknikariak jakitun dira jendea ateratzen eta kontsumitzen ari dela. "Esaterako, herritik kanpo kale edana egitera joaten dira, eta norbait erortzen bada, gauez, inguruan heldurik ez badu... Horrek arriskuak dakartza. Kontuan hartu behar dugu. Ez dira gazteen kontuak. Gizarte kontsumista gara. Hori ere ezin dugu ahaztu", gaineratu du. Ziurtasunik ematen ez duen testuinguruan, hirurek pentsatu

zuten herrietako festarik ez zela egonen eta, beraz, ezta Jaibusik ere. "Nafarroako Gobernuoekin hitz egin genuen, eta esan ziguten inondik inora ezin zela eskatu, dirulaguntza horiek ez zirela egonen", azaldu du Zabalak. Eta alkate baten esana aipatu du duten kezka azaltzeko: "legeak buru gainean daude, baina errealitatea aurreko aldean. Eta ez datoz bat". Zabalak bestela esanda: "festarik ez dago eta, beraz, ez dago istripuak prebenitzeko kanpainarik. Baina ikusten dugu jendea elkartzen ari dela, ateratzen ari dela. Baina ez daude prebentziorako zeuden estrategia horiek. Ezin dira neurri batzuk jarri. Egoera kezagarria

eta lantzeko. Lagun artean ongi pasatzea".

### Aurrebegirale ikastaroa

Aisialdian interesa duten 14 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta dago ikastaroa. Ikastaroa gari- laren 19tik 22ra izanen da. Aste- lehenetik asteazkenera 10:00eta- tik 14:00etara eta ostegunean, 22an, berriz, 10:00etatik 18:00eta- ra. Guztira 20 orduko iraupena du. Urtxintxa aisialdi eskolako kideek ematen dute ikastaroa, euskaraz. Ikastaroa osatzen du- tenez, akaberan ziurtagiria ja- soko dute. Aurrebegirale ikasta- roa aisialdi begirale titulazioa ematen duenaren aurreko pausoa da. Azken hori, normalean, 18 urtetik gorakoendako da. Doako ikastaroa da, izena eman nahi duenak 616 841 995 telefonora hots egin edo whatsapp bidali dezake. Izena emandakoen ara- bera ikastaroa Etxarri Aranatzan edo Altsasun egingen da.

Zabalak azaldu duenez, "ludo- tekatik eta gazteen baliabidee- tatik kanpo gelditzen direnen- dako da. Interesa dute beraien herrian gauzak egiteko, herriko gauzak aldatzeko..." Parte har- tzaileek aisialdian dauden hain- bat aukera aztertu eta ezagutze- ko aukera dute, eta horiei buruz hausnartzeko aukera ere bai. Ondoren, herrirako proposame- nak egiteko eta aurrera erama- teko aukera izanen dute. Gonza- lez de Pedrosok gaineratu duenez, "gazteak mugitzeko eta haien

## Ihes gelaren datak

Eguna	Herria
Garilak 14	Etxarri Aranatz
Garilak 16	Lakuntza
Garilak 17	Ergoiena
Garilak 19	Olatzagutia
Garilak 20	Olatzagutia
Garilak 21	Altsasu
Garilak 22,	Altsasu
Garilak 23	Bakaiku
Garilak 24	Ziordia
Garilak 27	Urdiain
Garilak 28	Iturmendi
Garilak 29	Uharte Arakil
Lastailak 30	Irurtzun
Lastailak 31	Arakil

interesak lantzeko ikastaroa da. Hori guretako 'baratzea' da, erre- ferentzia diren gazteak izateko. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Prebentzio estrategia bat ere bada. Haiekin landu, haien ideiak jaso..."

Irizarrek esan duenez, "ikas- taroak gazteei aukera ematen die aisialdiaren arloa ezagutzeko, eta ikusteko beraien interesen barruan dagoen edo ez. Eta, on- doren, nahiko balute, begirale ikastaroa egiteko aukera lukete, luzeagoa dena. Azken horrek lan aukerak eskaintzen ditu".

agian, mendian egiten dituzte festak eta mendira igo eta menditik jaitsi horretan arrisku handiak daude. Horregatik gaude egoera zailean".

Pandemian ere istripuak izaten dira. Horregatik, Irizarrek aholkua eman du: "kontsumituko dugula jakinda, kontrolatu, nola jokatu jakin eta alde zurretik pixka bat pentsatu". Zabalak ideia bera azpimarratu du: "edatean edo kontsumitzen denean autorik ez hartu. Edo autoa hartzen duenak ez dezala edan. Europako herrialde batzuetan hori oso argi dute. Jaibusik ez dago, baina ahalik eta gehien garraio publikoa erabili. Eta kontsumitu behar bada, mesedez, autorik ez hartu. Horrela etxetik atera, ongi pasatu eta etxera ongi bueltatuko gara".

## Zordun handien zorra 110.000 eurotan handitu da

Nafarroako Ogasunaren zordun handien artean ibarreko 13 ageri dira. Bik zorra murriztu dute

SAKANA

Foru Ogasunarekin duten zorra 120.000 eurokoa edo gehiagokoa duten zergadun zordunen zerrenda argitaratu du Nafarroako Gobernuak. 2020ko akaberan 673 zergapekok 319,9 milioi euro zor zizkioten Ogasunari. Zordunen %1,93 sakandarra da eta haiek zor guztiaren %1,33 dute. Hau da, 13 zergadun zordun sakandar daude zerrendan, ogasunari 4.271.874,15 euro zor dizkiotenak.

Sektoreka begirata, industria arloko zordunek ibarreko zorraren %53,51 dute, 2.286.022,9 euro. Sei enpresa dira. Haietatik hiru itxita daude finantza erakundeek eragindako krisiak bete-betean jo ondoren. 832.758,54 euro zor dituzte eta haien zorra ez da handitu. Talde berekoak dira beste bi eta 1.332.096,14 euro zor dituzte. Azken urtean haien zorrak 82.804,12 eurotan egin du gora. Berriki itxitakoak 121.168,22 euro zor ditu. Bere arduradunek 5.635,77 eurotan murriztu dute ogasunarekin duten zorra.

Hiru zordun ostalaritzakoak dira, guztiak itxita. Hiruren artean zorraren %22,35 pilatzen dute, 954.899,32 euro. Haietako biren zorra zegoen bezala man-



Industrialde bat. ARTXIBOA

tendu da eta beste batenak 4.215,64 eurotan egin du gora. Eraikuntza sektoreko hiru zordun handi ditugu Sakanan. Ibarreko zorraren %19,67 pilatzen dute, 840.2212,07 euro. Finantza arloak eragindako krisiak itxiarazi zituen bi enpresa zordun eta besteak hirugarren urte jarraian zorra murriztu du, 10.000 euro gutxiago zor ditu egun. Azkenik, merkataritza arloko enpresak atak zabalik ditu eta bere zorra azken urteetan igo egin da; joan den urtean 39.085,38 euro gehiago. Berea ibarreko zorraren %4,46 da.

## DUELA 25 URTE...

**Sakanako Turismo Gida**  
**Guía Turística de Sakana**



### Sakanako lehen turismo gida

Sakanako turismo batzordearen ekimenez argitaratu zen ibarreko aurreneko turismo gida. Argitalpenak dozena bat orri zituen, eta bertan Sakanako ostatu, jatetxe, artisau eta zerbitzu orokorren berri ematen zen. Horretaz aparte, hiru ibilbide eta artea, kultura, historia eta naturari buruzko informazioa jasotzen zituen gidak. Batzordeak, bestalde, garilaren lehen astean landetxeak sortzeko hitzaldiak eman zituen Irañetan, Lakuntzan eta Iturmendin. Orduan sei landetxe zeuden.

# Zuzendaritzak bere proposamena ezarri du

La Vasco Navarrako zuzendaritzak lan hitzarmenaren negoziazioaldian egin zuen azken proposamena indarrean ezarriko du alde bakarrez. Astelehenean jakinarazi zuen, langileak lan hitzarmen "duinaren" alde greba egitera deituta zeudenean

OLATZAGUTIA

La Vasco Navarran lan harremanak arautzeko enpresa hitzarmena apirilaren 30ean irautu zen. Zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen arteko bileretatik ez ziren adostasunarekin atera. Zuzendaritzak adierazi duenez, "zentsuzko akordioa lortzea ezinezkoa izan da". Eta garagarrian estatuko hitzarmena ezarri zuen eta baimenen atala aldatu zuen.

Enpresa batzordean gehiengoak duten LABek (2 delegatu) eta CCOOK (delegatu bat) "onartezintzat" jo zuten enpresaren proposamena, "zeuden hobekuntza eskasak absentismoari eta produktibitateari lotuta zeuden, apenas hobetzen zen 1.000 euroko soldata garbia, soldatak xurgatu zitezkeen eta ultraktibitateko konpromisorik ez zegoen. eta estatu hitzarmenera aldatzeak lan baldintzak "gehiago prekarizatea" ekarri zuela esan dute.

LABek eta CCOOK deituta azken hilabeteetan lanuzteak egin dituzte langileek, baita egun osoko greba ere astelehenean (ELAk eta UGTk ordezkarri bana dute, baina ez dute bat egin). Deitzaileek jakinarazi zuten, erantzuna "nahiko ona" izan zen, enpresak kontraturiko langile gehienak greba egin zutela adierazi zuten. Ondorioz, "arazoak" egon ziren eguneko ekoizpena egiteko. Gaztigatu zuten, "prekarietateagatik langile batzuk ezin izan dute grebarik egin".

Astelehenean bertan zuzendaritzak jakinarazi zuen maiatzean aurkeztutako bere azken proposamenean jasotako lan baldintzak ezarriko dituela 2021 eta 2023 aldirako. Zuzendaritzak erabaki horrekin "udako porren aurretik ziurtasuna eman nahi zaie lan harremanei". Gaineratu duenez, "aldi berean, gure azken proposamenari buruz dauden sentsibilitate eta iritziak errespetatzen dira. Gainera, esne



Langileak irailera arte asteazkeneko 13:30etik 14:30era bilkurak egingen dituzte.

## "UDA AURRETIK ZIURTASUNA" EMAN NAHIA BATENDAKO, "GARAIPEN TXIKIA" BESTEARENDAKO

industriako hitzarmen kolektiboan jasotako baldintzen hobekuntza eta hura gure plantillaren errealitateara eta beharretara egokitze enpresa hitzarmenak negoziatu eta lortzeko duela 16 urte ezarritako kulturari jarraipena emateko helburua du".

### Balorazioa

Zuzendaritzaren erabaki horren berri izan ondoren, LABetik adierazi dutenez, "enpresak atzera egin du eta lan baldintza berriak ezarriko dizkie langile guztiei. Garaipen txiki bat da enpresa mugitu izana, baina baldintza berriek ez dituzte langileen aldarrikapenak asetzen. Ziurrenik zuzendaritzaren helburua izan da langileak desaktibatzea". Ezarritako lan baldintza berriak inorekin adostu ez izana "askatasun sindikalaren eta negoziazio kolekti-

borako eskubidearen kontrakoa da, demokratikoki aukeratuak izan diren enpresa batzordeko kide guztien gaineratik pasata hartu da erabakia" LABendako. Sindikatutik azaldu dutenez, zuzendaritzaren "mugimenduak ez du lege bermerik, langileendako ez du ziurtasunik". Horregatik, "lan baldintzak hobetu eta askatasun sindikalak bermatzeko borrokan segitzeko beharra" azpimarratu du. Iraila bitartean asteazkeneko ordu erdiko lanuztea deitu dute goiz eta arratsaldeko txandetan. Enpresan gauzak aldatzeko enpresa batzordearen eta langileen batasuna gakoak direla gaztigatu dute LABetik.

Langileen eskaeren artean daude: enpresako lan hitzarmen "duina", lan baldintzak hobetzea, langile guztien soldatak berdinak edo antzekoak izatea (soldataren kontzeptu guztietan %2,5 handitzea nahi lukete; ontziratze atalean soldatak 1.000 euro ingurukoak dira), Aldi Baterako Lan Enpresen bidezko kontratazioa ohikoa izan beharrean salbuespena izatea (langileen %20-30 dira gaur egun) eta urteko 1.770 lan orduak murriztea.



Ziordiko udaleko eta gobernuko ordezkariak herriari egindako bisitan. UTZITAKOIA

## Kaleak berritzeko lanek badute finantza hitzarmena

Udalak eta Nafarroako Gobernuak sinatu dute eta hiru kaleren lanen finantzaketa erraztuko dio udalari

ZIORDIA

Olatz Irizar Martinez alkateak eta Bernardo Ziriza Perez Lurralde Kohesiorako kontseilariak hitzarmena sinatu dute herri lan batzuen finantziazioa lotzeko. Ziordiko Udalak herriko hiru kale berritzeko 430.000 euroko aurrekontua duten lanak eginen ditu udan zehar. Dirutza horretatik udalak 255.000 euro jarriko ditu eta Nafarroako Gobernuak gehienez ere 175.000 euro. Zehazki Dona Luzia kaleko 21 eta 58 zenbakien artean, Dona Maria kalearen 9 eta 29 zenbakien artean eta Miraria kalearen 12 eta 16

zenbakien artean eginen dira sareak eta zorua berritzeko lan horiek.

Perez kontseilariak azaldu duenez, "hitzarmena Nafarroako Gobernuak despopulazioari aurre egiteko bultzatzen dituen ekintzen barruan sartzen da, eta herriko biztanleek zerbitzu eta azpiegitura egokiak izatea ahalbidetzen du". Kontseilariak nabarmendu duenez, Ziordiak biztanleriaren %35 baino gehiago galdu du azken 70 urteetan, 1950ean 540 biztanle izatetik gaur egun erroldatutako 350 izatera igaro baita.

# GRko seinaleztapenean kalteak eragin dituzte

Bakaikuko eta Iturmeniko udalek 4.000 euroko balioa duten kalte eta sabotajeak "gogor" salatu dituzte. Mustutzear den ibilbidea 63,4 km-ko luzera du eta bi etapa nagusi ditu, gainera, 11 aldaera eta lau eratorbide ditu

BAKAIKU / ITURMENDI

Garagarrilaren hasierarako Bernoako galtzadako ibilbidea, GR 323 izena duena, guztiz seinaleztatuta zegoen. Mustutzear da ibilbidea. Baina ibilbidearen berri ematen duen seinaleztapena jarri denetik haren kontra egin du jendeak. Bakaikuko eta Iturmendiko udalek jakinarazi dutenez, batez ere hilaren 20ko gauean eragin ziren kalte gehien. Ibilbideko "11 gezi, 5 plaka eta hainbat seinale horizontal kalteak izan dira, eta kalte horien balioa 4.000 euro ingurukoa da", gaztigatu dute. Kalteak eragin dituen ezezaguna identifikatzeko pausoak eman dituztela jakinarazi dute udalek. Eta dei "argia" egin dute "egindako kalteak eta sabotajeak salatze-ko eta guztion artean gure ondarea babesteko".

Bernoako galtzadako ibilbidea Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo udalek sustatuta sortu da. Batetik, na-



Bakaikuko hori bezala, Iturmendin ere margotutako seinaleak agertu ziren. UTZITAKOIA

tura eta historia ondareari balioa eman nahi zaie. Eta, bestetik, "landa garapenerako proiektu sostengarriak onura nabarmena izanen du, herritar gehiagok asko disfrutatuko dute kirol eta kultur azpiegitura hau, Bernoa-

ko galtzada eta bere gertakizun historikoez ikasiz, eta beraien sustraiez harro sentituz".

Erdi Aroan mandazainek kosta eta Lizarraldea lotzeko baliatzen zuten galtzada, baita herri-tarrek egunerokotasunean ere.

## Festak bertan behera

Pandemia erabat bukatu ez delako hartu du neurria

ALTSASU

Altsasuko Udalak herenegun egindako bilkuran herriko festak

bertan behera uztea erabaki zuen. COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak sorrarazitako osasun

egoera kontuan izanik, eta osasun agintarien aholkuei jarraituz, Altsasuko Udalak erabaki du bertan behera uztea aurtengo festak. 2015eko festen inguruko herri galdeketa ondoan, aurtengo festak irailaren 10etik 14ra izan behar zuten.



Bestalde, Altsasuko Udalak udari begira kultur egitarau zabala prestatu du eta horretara 30.000 euro bideratu ditu. Joan den urtean bezala, Iortia kultur guneko zabalgunek hartuko ditu kultur ikuskizunak. Jendeak haiek eserita ikusteko aukera izanen du.

### Egitaraua

#### Iortia zabalgunea

- Garilak 2, ostirala, 20:00etan *Gozategi tour*.
- Garilak 8, osteguna, 18:00etan Oihulari Klownen *Hiri dantza*, (Gozamenez)
- Garilak 10, larunbata, 20:00etan Haize Berriak bandaren kontzertua.

- Garilak 15, osteguna, 20:00etan Andoni Mutiloaren *Esnatu naiz* kabareta. (Gozamenez)
- Garilak 16, ostirala, 20:00etan *Tequila's party*.
- Garilak 23, ostirala, 20:00etan, The Flaming Shakers, The Beatlesen omenez. (Kultur)
- Garilak 31, larunbata, 20:00etan La Banda del Jefe Bigun.

- Agorrilak 6, ostirala, 20:00etan, La Tribu Obembe.
- Agorrilak 13, ostirala, 20:00etan, Hutsun eta Ortziren *Urbasa* musika eta zirkua ikuskizuna.
- Agorrilak 20, ostirala, 20:00etan, Txorongo txaranga.
- Agorrilak 27, ostirala, 20:00etan, Atzapar rock.

- Irailak 5, domeka, 17:30ean, Altsasuko erraldoi konpartsa.

#### Nafarroako XX. Zirkua Jaialdia

- Irailak 4, larunbata, 19:00etan, *La Reina del Arga*. Tefi de Paz. Baratzako bidea plaza.
- Irailak 4, larunbata, 22:00etan *Sacred*.

La glo circo. Iortia kultur guneko zabalgunea.

#### Dantzaleku igerilekua

- Garilak 8, osteguna, 19:00etan, Elvi sabeliztuna.
- Garilak 15, osteguna, 19:00etan, Pepa eta Kutxo pailazoak.
- Garilak 22, osteguna, 19:00etan, *Salam*, Xilipurdi antzerkia.

# “ Indar berriturik gatoz ”

## Ainara Santiago Langarika

GK DISEINU ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUKO ARDURADUNA

### Zeinek balia dezake GK zerbitzua?

Edonork. Sakanako merkataritzari zein biztanleriari beraien neurriera egokitutako beharrak asetzeko gaude hemen. Ikerketa lan txukuna egin, bakoitzaren beharrak aztertu eta kanpaina baten baitan, pixkanaka jarriko gara harremanetan. Aipatu nahiko nuke ere, Guaixe fundazioaren baitan dagoen zerbitzua izanda, fundazioaren bazkide den guztiak %5eko deskontua izanen duela gurekin egindako hainbat zerbitzuetan, fundazioaren parte izatea saritu nahi dugu horrela.

### Hori da ibarrarekin duzuen lotura bakarra?

Ez. Ahal den heinean Sakanako hornitzaileekin lan egiten saiatzen gara, bertako ekonomiari bultzada emateko.

### Zein izaten da zuen lan prozedura?

Abiapuntua bezerioaren nahia edo beharra da. Bezero batek produktu, ekitaldi edota marka batekin jotzen du guregana. Batzuetan irudia zerotik sortzeko, beste batzuetan hura eraldatzeko edo diseinu zaharkitu bat berrietzeko. Izan daiteke ekitaldiren bat iragarri nahi izatea kartel edo esku-orrien bidez, marka baten nortasun korporatiboa sortzea edo produktu baten packaginga diseinatzea esate baterako.

Bezeroarekin hitz egin eta gero, aurrekontua prestatzen da bezeroarekin hartutako erabaki guztiak kontuan izanda. Behin hau onartuta, lanari ekiten diogu.

Bukaerako produktu horri forma ematea da hurrengo pausoetan egiten dena. Bezeroari lehengo probak bidaltzen zaizkio eta lana doitzen goaz proba gehiagoren bitartez. Emaitzarekin konforme dagoenean inprentara (produktu fisikoen kasuan) edo euskarri digital moduan bidaltzen da.

Garrantzia handia ematen diogu prozesu guzti honetan zehar bezeroarekin elkarlanean egoteari.

### Zer esanen zeniokete enpresa bati bere irudia aldatzera animatzeko?

Diseinua askotan gutxiesten den kontua

da; azken momenturako uzten den horietako bat. Lehen aipatu bezala, irudiak pentsa dezakeena baino garrantzi handiagoa du. Liburuekin jende askok egiten duena: bata edo bestea azalaren itxuraren arabera aukeratu. Adituek diote segundo batzuk besterik ez direla behar erabaki hori hartzeko, itxurarekin iritzi positibo edo negatiboa sortzeko. Azken finean, marka horretarako nortasuna sortzea da, publiko jakin baten gain arreta pizteko.

Hala ere, enpresa bakoitzak bere berezitasun eta behar zehatzak izaten ditu eta horiek aztertzea izaten da gauza garrantzitsuenetariko bat. Enpresa horri gurekin harremanetan jartzeko, gurekin hitz egiteko eta konpromisorik gabe aurrekontua eskatzeko esango genioke.

### Denen artean egiten duzue beraz. Zein zerbitzu eskainiko dituzue?

Bai. Hiru zerbitzu nagusi ditugu GK-n. Diseinu grafikoko zerbitzuan diseinu korporatiboa, diseinu editoriala, ilustrazioa eta web diseinua lantzen ditugu beste batzuen artean. Aipatutako zerbitzuez aparte, beste ezer beharko balitz ere, lantzeko prest gaude, eten gabe lanean, ikasten eta zerbitzurik onenak eskaintzen baikabiltza.

### Eta publizitatea ere?

Hala da. Bezeroen mezua hainbat komunikabideen bidez zabaltzen dugu: prentsa, irrati eta webguneetan. Irargariak diseinatu ditzakegu Guaixe atekarian, herriko festen programan edo beste aldizkari edo egunkarietan argitaratzeko. Gainera, euskarazko tokiko komunikabideen elkartearen bidez, Tokikom-en bidez publizitate kanpainak Euskal Herri guztira zabal ditza-



DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

nek asko lagun dezakete.

### Zein hizkuntzatan egiten duzue lan?

Guaixe fundazioak euskararen normalizazioaren alde lan egiten du eta gure jarrera hori da ere. Baina GK zerbitzuak bidelagun izan nahi du eta bezeroaren hizkuntza berean lan egiten du. Egokitzeko gaitasun hori badugu. Honi lotuta, aipatu itzulpen zerbitzua ere eskaintzen dugula edozein webgune, idatzi, lan... euskaratu nahi duenari laguntzeko."

### Zer da GK? Nor dago horren atzean?

GK Guaixe fundazioaren barne kokatzen den diseinu grafiko eta komunikazio lantalde profesionala da. Hainbat langilek osatzen dugu lantaldea: Ainhoak eta biok diseinu grafikoko lanak egiten ditugu. Baina lan taldea komertzialek, publizistek eta administrariak osatzen dute.

Nik, 4 urteetako eskarmentua dut eta orain Guaixe fundazioaren GK diseinu eta komunikazio zerbitzuko lantaldearen ardura hartu dut. Niretako hau erronka handia da eta ilusio handiarekin ekin diot lanari. Ainhoak, berriz, diseinatzaile eta maketatzaileran aritu da hainbat enpresatan 2003tik, eta Guaixe fundazioarendako lanean 2007 urtetik ari da. Biak, Arte Ederretan lizentziatuak gara eta Diseinuko goi mailako ikasketak ditugu.

### Ibilbide luzea duen komunikazio zerbitzua da orduan...

Bai, eskarmentu handiko langileak gabilta lanean. Urteak daramatzagu zerbitzu hau eskaintzen eta bizi izan dugun eta bizitzen ari garen egoera





# Zure ideiei forma emateko gaude

Gure lana zu entzutean datza. Entzuketa aktiboa egitean. Entzunez, elkar entzunez, ideia hori zehaztea; etereo den hori gorpuztea. Forma ematea. Zu eta gure lantaldearen artean. Diseinu grafiko, publizitate eta itzulpengintza soluzioak. Hori guztia da GK, diseinu eta komunikazio zerbitzua.

**Bidelagun bat.** Bidea zurekin eginen duena; ibilbidean aldamenen izanen duzun laguna. Elkarrekin ibiliz bidea xamurrago egiten baita. Eta ibilitakoak helmuga aparta bihurtzen du. Ase egiten gaitu. Horixe da GK, diseinu eta komunikazio zerbitzua, bidelaguna. Eskarmentu zabala duen profesionalen talde batek osatuta, hamaika bide ibilitako esperientzia duena. Diseinua, kazetaritza, sare sozialak, komunikazioa, webguneak... Bide horiek ibilitakoak gara. Zailduak gaude. Trebatuak. Bideo horietan barneratzen jarraitzen dugu egunero GK, diseinu eta komunikazio zerbitzuak, bidaide dituen bezero bakoitzarengandik gertu. Zure ideari forma ematen dion lantaldea baikara. Kide zaitugu, eta zure bidean urruti iristen lagundu nahi zaitugu.

Zure ibilbidea osatzeko, zure pausora, zure martxara, zure ikuspigira egokitzen gara. Zu entzunez egiten dugu bidea, zurekin. Uneoro komunikatzen. Zure arrakasta nahia gure eginez. Horretarako bitarteko proposenak aholkatuz, proposatuz. Eraginkorrak gara. Bideak erakutsi digu hala garela.

## Forma eman

GK, diseinu eta komunikazio zerbitzua diseinatzaile, kazetari zein komertzialen lantalde batek osatzen du. Eta, besteak beste, diseinu, marka, komunikazio, inprimaketa, merchandising, web orri, iragarkien kontratazio itzulpengintza soluzio eraginkorrak eskaintzen ditu. Kontatu, azaldu, adierazi eta zure negozio, enpresa edo erakundearen arrakastarako euskarririk egokiena opatuko dugu. Merezi duzun gertuko arretaz.



bereziak bultzatuta, erratza pasatu eta aldatuta batzuk egin ditugu.


## Zerbitzuaren irudia berri duzue. Zergatik?

Diseinu eta komunikazioan dabilen taldea izanda badakigu zein den irudiak duen garrantzia. Logoaren itxura pixkatxo bat zaharkitua zegoen eta berritzea erabaki genuen. Irudia zaindu beharreko kontua da eta are gehiago horrekin lan egiten baduzu. Helburu nagusia hura sinplifikatzea eta txukuntzea zen. Horretarako, ezinbestekoak ez ziren edo errepikakor jo ziren elementuak kendu genituen. Honekin hasi eta gauza batek bestera bultzatu gintuen. Irudiaren restylinga egin eta gero koherenteena webgunea berritzea zela erabaki genuen.

## Zein izan dira webguneak izan dituen aldaketak?

[www.gkomunikazioa.eus](http://www.gkomunikazioa.eus) webgunearen egitura aldatzeko beharra ikusi genuen. Beste egitura logikoago bat izatearen beharra, bere erabilera errazte aldera. Honen atalak sinplifikatu eta beste era batera antolatu ditugu erabiltzailea erosoago senti dadin. Erabiltzaileak hasierako atalean azken lanetarako sarbidea topatuko du, lanen atalean gure lanen erakusleia aurkituko du, ondoren, zerbitzuen deskribapen txiki bat izanen du, gurekin harremanetan jartzeko aukera ere. Webgunea bisitatzen duenak hiru hizkuntzetan opatuko du gure berri. Bukatzeko eta berrikuntza nagusi bezala, blogaren atala topatuko du.

619 821 436  
[gkomunikazioa.eus](http://gkomunikazioa.eus)



**Eneida C. M. / Mainer B. G. ETXARRI A.** Etxarri Aranazko plazak artisauen eta ekoizleen azoka hartuko du igandean, goizeko 10:30etik aurrera, sektoreari bultzada emateko.

**Pandemia hasi zenetik Sakanan ez da artisau eta ekoizle azokarik izan.**

**Begoña:** Bai, orain dela urte pasa ez garela plazara atera. Apirilaren azkeneko asteburuan Amalur azoka antolatzeke saiakera egin genuen, baina itxiera perimetralak eta beste zirela, azkenean guztia luzatu zen. Alaznek animatuta, igandean artisau eta ekoizle azoka antolatu dugu Etxarrin. Gutxienez plazara atera eta jendeak ikus gaitzala nahi dugu, presentzia izan.

**Alazne, beraz zu izan zara bultzatzailea, hau guztia astindu duena.**

**Alazne:** Beno... (kar, kar). Artisau azokak antolatzearen beharra dago, bai artisauen partetik eta baita ekoizleen partetik. Ekoizleek aukera gehiago dituzte kalera ateratzeko, ohiko merkatuetan euren postua jarri ahal dutelako, baina artisauen kasuan, pandemiatik atera guztiak itxi zaizkigu. Guk kalean saltzen dugu, eta azoka guztiak desagertu dira. Orain hasi dira gutxi batzuk egiten, artisauok eta ekoizleok batu garelako eta martxan jarri ditugulako, baina udalak, gobernua... ez da inor azokak antolatzera animatu. Gainontzeko guztia irekita dago, baina azokak ez.

**Ekoizleei lehenago ireki zitzaizkien plazak, elikagaiak eta oinarriko produktuak ekoizten dituztelako.**

**A.:** Jatekoak direnez, oinarriko produktuak, logikoa den bezala hala izan zen. Baina arazoa ez da bata ireki dela eta bestea ez. Arazoa da artisau azokak ez direla ireki. Merkatal guneak, dendak, "merkadilloak"... zabaldu dira, baina artisau azokak ez dira egin. Egia da gure azoka asko jaiegunei edo festei lotuta daudela, eta udalek festak bertan behera utzi dituztenez, horrekin batera azokak ez direla egin. Baina udalek ez dute azokak egitea planteatu ere egin. Kulturari begira, kontzertuak, antzerkiak eta beste egitea planteatu da, baina azokak ez. Eta artisau azokak seguruak dira. Kalean egiten dira eta distantziak mantentzeko espazioa dago, baina ez dira berreskuratu. Talde oso txikia gara, eta borroka hau zaila da guretako. Musikan, zineman, antzerkian edo ostalaritzan indar gehiago

# "Gu ere kultura gara, eta azokak seguruak dira"

**ALAZNE JUANIZ ETA BEGOÑA GOIKOETXEA ARTISAUA ETA EKOIZLEA**

Igandean artisau azoka antolatu dute Etxarri Aranatzan. Juanizek eta Goikoetxeak sakandarrak azokatik pasa eta betiko ogibideei babesa ematera animatu dituzte



Alazne Juaniz artisaua ezkerrean eta Begoña Goikoetxea ekoizlea eskuinean.

**"ARTISAUEN KASUAN, ATE GUZTIAK ITXI ZAIZKIGU. AZOKAK DESAGERTU DIRA" ALAZNE JUANIZ**

**"IGANDE GOIZEAN ETXARRIKO PLAZATIK BUELTA BAT EMATEA EZ DA PLAN TXARRA" BEGOÑA GOIKOETXEA**

dute. Gu talde txikia gara, eta guretako oso zaila da. Honen aurrean egin ahal dugun gauza bakarra gure egoera salatu eta guk gauzak martxan jartzea da. Ez dago besterik. Jende guztia gurekin ahaztu da, eta bide bakarra guk azokak antolatzea da. **Sakanan pandemia ondoko lehenengo artisau azoka Etxarriko izango da?**

**A.:** Bai. Nik abenduan azoka bat antolatu nuen Iruñean, Geltokin, Gabonetarako, baina Etxarriko Sakanako lehena da.

**Pandemian nola moldatu zarete plazara atera gabe?**

**B.:** Ekoizleen kasuan, ekoizle bakoitza berrantolatu da. Ni eskaerak jaso, saskiak egin eta bi hilabetez horrela egon nintzen. Bezeroen erantzuna bikaina izan zen. Nire produktua atera dut eta hori nahiko zaila da, nire produktua freskoa delako. Ez dut arazorik izan, baina badakit zenbait ekoizleri kosta egin zaiela. Adibidez, zenbait artzainek esnea saldu zuten ezin zutelako gazta atera, eta halakoak. Egoera ezberdinak egon dira.

**A.:** Gure kasuan zailagoa da. Artisau askok ogibidea utzi behar izan dute eta beste lan bat bilatu. Bestalde, dirulaguntzak oso gutxi izan dira, eta artisau askok ezin izan dituzte kobratu. Zergatik? Normalean Gabonetatik Aste Santura ez da apenas azokarik egoten eta tarte horretan zenbait artisauk baja ematen dute autonomoen kuotan. Ez da nire kasua, nik klaseak ematen ditudalako. Pandemiak baja emanda harrapatu zituen zenbait artisau, eta ezin izan dituzte dirulaguntzak jaso.

**Artisauak nola moldatu zarete?**

**A.:** Jostuna naizenez, bere garaian mila maskara egitea egokitu zitzaidan, hasieran ez baitzegoen maskararik. Badakit ere artisau batzuk online dendak zabaldu dituztela, baina ez dute behar bezala funtzionatu gure bezeroak oso bereziak direlako. Normalean oso kontzientziatua dagoen jendea da, gurekin harreman zuzena duena. Betiko bezeroak hor egon dira eta erosten jarraitu dute, baina tanta jarria izan da, ez da azoka batean saltzen egotea bezala. Badakit ere artisau batzuk euren produktuak dendetara eramaten hasi direla, baina gure prezioak oso ajustatuta daude eta azkenean gure produktuak dendetara eramaten baditugu dirua galtzen dugu. Edo, bestela, izugarri garesti jartzen dira.

**Igandean zein ekoizle hurbilduko dira Etxarriko azokara?**

**B.:** Ni Legarbe barazkiekin egongo naiz, eta baita Ziordiko Amaraunakoak, euren barazkiekin. Balda ardi gaztakoak, Joseba erlezaina, eztiarekin, eta Jein-genekoa, behi esnekiekin. Eta Arizkurendik Sandra etorriko da bere ukenduekin.

**Artisauen eskaintza zabalagoa da.**

**A.:** Ondokoak etorriko dira: Encueros Larrutan larrugileak, Txus Gruzeta bitxigilea, Tartesos orfebreria, Trimmer arropa, Kurukun txotxongiloak, Io zeramika, Los katxarros de Pedro jostailuak, Javi Trapero birziklatzea eta ni neu, Erabili arropak. **Sakandarrak etzi Etxarriko azokatik pasatzera animatuko ditugu**

**B.:** Jakina, pentsatzen dugu igande goiz polita izango dela. Produktu desberdinak eskaintzen saiatu gara, eta kalitatezkoak, hori ez dago esan beharrik. Igande goizean Etxarriko plaza-tik buelta bat ematea ez da plan txarra izango.

**A.:** Sakandarrak gonbidatzeaz gain, nik udalak animatuko nituzke, beste alor batzuekin egiten ari diren bezala, ekoizleekin eta artisauarekin gogoratu daitezela eta halako azokak antolatu ditzatela, nahiz eta festak bertan behera geratu. Gurea ere kultura da. Gure ogibideak betiko ogibideak dira, eta ofizio hauetaz bizitzea oso zaila da. Ogibide hauen alde sekulako apustua egin dugu, eta iruditzen zaigu gainontzekoei bezala, duten balioa eman behar zaiela. Gu kultura gara, besteak bezala, eta azokak seguruak dira.



Ezkerrean Erkuden Moreno eta Irati Irigoien, eta eskuinean Leire Etxaniz. BARGAGAIN

## Zilarrezko Leire Etxaniz eta brontzezko Irati Irigoien

**TAEKWONDOA** Espainiako Txapelketan lan bikaina egin dute biek, Rania Mabchourrek eta Erkuden Morenok

Asteburuan Espainiako Taekwondo Txapelketak jokatu ziren Alacanten. Nafarroako selezioarekin Altsasuko Bargagain Taekwondo taldeko lau sakandar aritu ziren: Leire Etxaniz Claver eta Rania Mabchour, kadete mailan, eta Irati Irigoien Crespo eta Erkuden Moreno Muñoz 21 urtez azpikoan.

Leire Etxaniz eta Rania Mabchour lehendabiziko aldiz aritu ziren Espainiako Txapelketan, eta lan ederra egin zuten biek. Leire Etxaniz Espainiako Taekwondo Kopan zilarra lortzetik zetorren, eta Espainiako Txapelketan ere maila bikaina eman zuen altsasuarra. Lau konbate edo borroka egin eta gero, Espainiako txapelkunordea izatea lortu zuen, meritu handiz zilarrezko domina lortuz.

Erkuden Moreno Muñoz aurretik Espainiako Txapelketetan aritu izan zen, baina 21 urtez

azpiko mailan lehenengo aldiz lehiatu zen. Kategoriako gazteenetakoena zen, baina oso debut polita egin zuen eta txukun aritu zen 46 kiloz azpiko mailan.

Irati Irigoien Cresporendako, aldiz, 21 urtez azpiko mailan Espainiako Txapelketan aritu zen 2. aldia izan zen asteburuko. Duela bi urte -joan zen urtean ez ziren Espainiako Txapelketak jokatu, pandemiarengatik-, brontzezko domina lortu zuen urdiaindarrak, meritu handiz, eta aurtengo txapelketan podiumean ikusi nahi zuen Bargagaingo bere irakasle Gerardo Morenok. 21 urtez azpiko 62 kiloko mailan lehiatu zen Irati, eta primerako lana egin zuen. Hirugarren sailkatu zen, eta, atzera ere, brontzezko domina lortuta itzuli da etxera. Aurretik beste kategoria batean zuen dominari gehituta, Espainiako hirugarren domina lortu du Irigoienek.

# Joseba Ezkurdiak berriro ere Altuna du zain

**PILOTA** Nafarroako Lau eta Erdiko Txapelketako Aspeko adarreko finalerdia jokatuko dute Ezkurdiak eta Altunak larunbatean Sopelan. Biek uztailaren 7ko final handiko txartela lortu nahi dute, eta final kutsua duen finalerdia dute aurrez aurre

**Maidar Betelu** ARBIZU

Nafarroako Lau eta Erdiko Txapelketa azken txanpan sartu da eta Joseba Ezkurdiak bere Nemesia izanen du zain larunbatean Sopelan: Jokin Altuna. Egungo bi aurrelari onenak elkarren kontra ariko dira, beste behin, final kutsua duen Aspe adarreko finalerdian. Ezkurdi edo Altuna. Altuna edo Ezkurdi. Nork lortuko du uztailaren 7an Iruñeko Labriten jokatuko den final handirako txartel preziatua? Ikusmina handia da, are gehiago frontoian pilota zaleak egotea baimendu denetik. Katedra frontoietara itzultzeko gogotsu dago, eta maila goreneko partida bat badago, zer esanik ez.

Ezkurdiak eta Altunak, biek ederki sufrituta lortu zuten Nafarroako Lau eta Erdiko Txapelketako Aspe adarreko finalerdietara sailkatzea. Ezkurdiak Peio Etxeberria izan zuen aurkari igandean Donostiako Atano III. ean, eta nahiz eta arbizuarra oso ongi hasi -13 eta 5 aurreratu zen-, Peio Etxeberriak bigarren zati bikaina egin zuen eta 16 eta 12 hurbildu zitzaion Ezkurdiari. Azkenean 22 eta 15 gailendu zen arbizuarra, baina ederki kostata.

Altunak ere gogotik egin behar izan zuen lan Iker Salaberria bidean uzteko. Goizuetarra 6 eta



Biak antzeko egoeran iritsi dira finalerdietara eta lehia estua espero da. JOSE MARI LOPEZ

15 aurreratu zen, eta egungo buruz buruko txapeldunak gorriak eta bi pasa behar izan zituen partidari buelta eman, eta azkenean 22 eta 19 gailentzeko. Pilota profesionalen ez baitago arerio txikirik.

Beraz, Ezkurdiak eta Altuna antzeko egoeran iritsi dira larunbateko finalerdia. Kaiolan iaioak dira biak, aurrelari trebe eta gogorrak, eta maila goreneko partida espero da Sopelan. Nafarroako Lau eta Erdian, azken lau urteetan jarraian, biak aurkari izan dira. Azken hiru edi-

zioetan Altuna gailendu zen, eta 2016koan Ezkurdiak. Larunbatean ikusiko da nor sailkatuko den uztailaren 7an Labriten jokatuko den final handirako.

**Baikoko adarra**

Baiko adarreko azken final laurdena Altsasuko Burunda pilotalekuan zen jokatzekoa gaur, ostirala, baina azkenean Mallabiak hartuko du kanporaketa hori. Urrutikoetxeak Laso izanen du aurkari, eta irabazleak Agirre izango du zain igandean Amurrioren jokatuko den finalerdian.

## Aristorenari omenaldia

**PALETA GOMA** Txiki geratu zen Etxarriko frontoia Nafarroako Emakume Master Cup Txapelketako finaleran. 1. mailan txapelak ihes egin zien Uxue Mendinueta eta Ane Eskala etxarriari, gutxiatik. Bukaeran omenaldi xume bezain beroa jaso zuen Gure Pilota klubeko Miguel Angel Aristorenak, emakumezkoen pala sustatzeko egiten duen lan nekazeginatik.



EMAKUME MASTER CUP



Raquel Sanchez eta Maria Goikoetxea etxarriarrak helmugara heltzeaz. Etxarriar askok parte hartu zuten proban. TRIKU TRAIL

# Aspaldiko Triku Trailik gozoena

**MENDI LASTERKETAK** Gozatu ederra hartu zuten Etxarriko proba zoragarrian aritu ziren 250 korrikalariak. Lehen sakandarrak Jokin Bereziartu altsasuarra eta Marina Zabala lakuntzarra izan ziren, eta lehen etxarriarrak Aritz Munarriz eta Eneritz Karasatorre

Pandemia hasi zenetik lehenengo mendi lasterketa jokatu zen igandean Sakanan, Etxarri Aranazko Triku Traila. Korrikalariak bertan aritzeko gogotsu zeuden, eta horren isla izan zen soilik ordu bat eta 9 minutuko epean agortu zirela antolakuntzak zehaztutako 250 dortsalak.

Triku Traileko 120 boluntario goiz goizetik aritu ziren prestaketa lanetan. Osasun neurriak beteaz, korrikalariendako eremu itxia edo burbuila prestatu zuten Etxarri Aranazko kanpinera heldu baino lehenago, ezker aldean. Korrikalarien irteera, helmuga eta sari ematea bertan egin ziren, publikorik gabe. Haiek animatzera hurbildu ziren ikusleek ibilbideko gainontzeko eremuetan jarraitu zuten proba, Fagamendiko dolmenean, Fagamendin, Auntzetxen eta Lizarrustin, esaterako. Askok izan ziren autoa Lizarrustiko aterpean utzi eta lasterketa jarraituzera hurbildu zirenak, eta giro polita egin zen.

Eguna fresko esnatu zen, eta ibilbideko zenbait tokitan lainoa zegoen. Beraz, korrika egiteko eguraldi paregabea izan zuten korrikalariak. Kanpin ondotik aterata, Maitzegurrera jo zuten, Auntzetxen aurrera egin eta Axioaren putzutik aurrera joz Lizarrustira heltzeko. Handik Txaradigorriko dolmenera eta Hirumugetara heldu ziren, tarte zailena, ondoren Otxentara jaitsi eta Fagamendira heltzeko. Bukatzeko, haritz zaharren bidetik iritsi ziren helmugara, 21 km eta 1.400 metroko desnibel positibo gaitu eta gero.

Azkarrena Leintz Gatzagako Aitor Ajuria izan zen (1:47:46). 23 urteko gazteak lehia oso estua izan zuen Inigo Macias iruindarrek. Helmugara ia batera iritsi ziren, baina azkeneko Aju-riak 3 segundoko tartea aterazio eta eguna hamarrekoa izan zela adierazi zuen txapeldunak. Aitor Blancok osatu zuen podiuma (1:49:15). Lehen sakandarra Jokin Bereziartu altsasuarra

izan zen, helmugara 12. heldu eta gero (1:56:46), eta lehen etxarriarra Aritz Munarriz, helmugan 18. (1:58:35).

Emakumezkoetan Sara Alonso donostiarrak lehenengo aritu zen Triku Trailen, eta 22 urteko gazteak garaipen nahiko erraza lortu zuen (2:01:46), 3 minutu pasa atera baitzizkion Igorreko Onditz Iturberi (2:04:47). Aretxabaletako Ainara Urrutiak osatu zuen podiuma (2:09:37). Alonsok Triku Trail "proba oso dibertigarria" iruditu zitzaioala azaldu zuen, "21 kilometrokoa izateko oso exigentea". Lehen sakandarra Marina Zabala lakuntzarra izan zen, 8. postuan (2:38:53), eta lehen etxarriarra Eneritz Karasatorre (2:39:35), 10. postuan.

Nabarmentzeko da sakandarraren eta bereziki etxarriarren parte hartzea ikusgarria izan zela. 45ek lortu zuten proba bukatzea. Bestalde, korrikalariak antolakuntzak proba antolatzeko egin beharreko ahalegina eskertu zuten.

## Sakandarrak Triku Trail lasterketan

### Gizonak

1. Aitor Ajuria	1:47:46
12. Jokin Bereziartu	1:56:46
14. Eukeni Goikoetxea	1:57:12
17. Javi Gasanz	1:58:34
18. Aritz Munarriz	1:58:35
35. Asier Palacios	2:04:37
67. Joseba Galarza	2:13:54
68. Alber Razkin	2:13:55
77. Patxi Rubio	2:17:03
79. Juan Mariñelarena	2:17:18
91. Ibon Ubeda	2:19:26
92. Jorge Iradi	2:20:28
97. Carlos Mañeru	2:21:18
98. Unai Razkin	2:21:24
99. Joxeja Maiza	2:21:26
102. Mattin Altzelai	2:22:18
120. J. Daniel Lakuntza	2:27:26
125. Xabier Mauleon	2:29:18
127. Fran Araña	2:29:39
132. Ivan L. de Sabando	2:31:50
133. Ibai Arrese	2:31:58
139. Jon Igoa	2:32:35
145. Adrian Jaka	2:34:06
147. Xabier Etxeberria	2:34:25
151. Oihan Barandalla	2:38:14
173. Goyo Rodriguez	2:45:54
181. Iban Verdugo	2:49:43
182. Xuban Mendiola	2:51:07
186. Gorka Elizalde	2:52:41
187. Bernardo Garziandia	2:53:27
188. Urko Rekalde	2:53:45
190. Jon Goikoetxea	2:55:23
192. Asier Larrion	2:56:16
193. Araitz Jaka	2:56:54
196. Aitor Salinas	2:58:20
205. Luis Goñi	3:16:10
206. Miguel Moreno	3:19:01
<b>Emakumeak</b>	
24. Sara Alonso	2:01:46
154. Marina Zabala	2:38:53
156. Ainhoa Beraza	2:39:32
157. Eneritz Karasatorre	2:39:35
162. Aran Larrañaga	2:40:03
183. Erkuden S. Martin	2:51:58
184. Raquel Sanchez	2:52:34
185. Maria Goikoetxea	2:52:35
197. Joana Senar	2:59:48
203. Txaro Ondarra	3:12:08

## KORRIKALARIK ANTOLAKUNTZAK PROBA PRESTATZEKO EGINDAKO AHALEGINA ESKERTU ZUTEN

## SAKANDARRAREN ETA BEREZIKI ETXARRIARRAREN PARTE HARTZEA IKUSGARRIA IZAN ZEN



Burundak Gipuzkoako Itzulia irabazi du.

## Urdiainek bi txirrindularitza lasterketa hartuko ditu

**TXIRRINDULARITZA** Burundak antolatuta, larunbatean eskolena eta asteazkenean kadeteena jokatu dira

Urdiainen festa ofizialik ez da egongo, baina festetan antolatu ohi diren bi txirrindularitza lasterketei eustea erabaki du Burunda Txirrindularitza Taldeak. Horrela, larunbat arratsaldean eskola mailako lasterketak eta ginkana probak jokatu dira, eta, asteazkenean, uztailaren 7an, kadeteen mailako III. Urdiain Saria jokatu da.

Kadeteen lasterketa asteazkenean arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Urdiaingo plazatik, eta txirrindulariek 56 km osatu beharko dituzte. Lehenik eta behin Etxarri Aranatzerraino iritsiko dira, buelta hartu eta Ziordiraino heltzeko. Ziordian buelta hartu, eta atzera ere Etxarri Aranatz izango dute helburu. Etxarriara helduta, buelta hartu eta Olaztiraino helduko da tropela. Orduan ekingo diote Altamira portua igotzeari. Portua jaitsita, Urdiaingo bidea hartuko dute, helmugara heltzeko.

### Hugo Aznarren Itzulia

Quesos Albeniz-Burunda taldean oso kontentu daude astelehenean Hugo Aznarrek Gipuzkoako Junior Itzulia irabazi zuelako, atariko eta 3 etapa dituen proba prestigiotsua. Azkeneko etapan Mikel Uncilla bere taldekide etxarriarra 3. sailkatu zen.



# "Pozik ez, hurrengoa: oso pozik nago"

**JUNE KINTANA LARRAZA** ESPAINIAKO DISKO JAURTITZAILE TXAPELDUNA  
**DISKO JAURTIKETA** Atleta bakaikuarra Espainiako disko jaurtiketako txapeldun handia da. Kilo bateko diskoa 54,12 metrora jaurti zuen Getafen jokaturako txapelketetan

**Maidar Betelu Ganboa** BAKAIKU  
 Asteburuan Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutua jokatu zen Getafen eta Grupompleo Pamplona Atletico taldeko June Kintana Larrazak emakumezkoen aurten disko jaurtiketarik onena egin zuen: 54,12 metro. Bakaikuarra 2019an izan zen lehenengoz Espainiako txapelduna, iaz ez zen posible izan, eta aurten tronua berreskuratu du. **Zorionak Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutua irabazi izanagatik! Pozik egongo zara...**

Eskerrik asko! Pozik ez, horren hurrengoa: oso pozik nago. Nazioarteko txapelketetan ezin izan nuen aritu, geratzen zitzaidan helburu bakarra Espainiako Txapelketa zen. Ez nintzen espektatiba handiekin joan, baina, azkenean, lasai eta ziurtasunarekin arituz, sekulako txapelketa atera zen.

**Bizkarrean arazoekin zabilta, oinazeekin.**

Aspalditik dut bizkarreko mina. Pandemia aurretik nituen oinazeak handitzen joan ziren, eta entrenamenduetako intentsitatea jaitea erabaki genuen, pisua bizkarrean ez jartzea eta ariketak nire gorputzaren pisuarekin bakarrik egitea. Helburua zen Espainiako Txapelketara bizkarra erlaxatu gogortzea. Fizioengana



Kintanak denboraldiko jaurtiketa onena egin zuen Getafen. ESPAINIAKO FEDERAZIOA

eta osteopatarengana joateak asko lagundu dit. Nire entrenamenduetan ere osteopatia ikasten ari da, eta bere irakaslearen eta nire osteopataren artean lortu genuen ni txapelketara bizkarra deskargatua edo behintzat min gutxiagorekin iristea. Alde horretatik ere kontentua nago.

**Oinazeekin egonda ere, 51 metroren bueltako markak egiten ari zinen, baina Getafen 54,12 metroko jaurtiketarekin salto bat eman zenuen.**

Bai. Banekien edozer gerta zitekeela, aurten emakumezkoen

diskoan lau atleta antzeko mailan geundelako, marka ia berdinetan, baina txapelketa oso ongi atera zen eta oso pozik nago.

**Bigarrenez zara maila absolutuko Espainiako disko jaurtiketa txapelduna. 2019an lehen aldiz lortu zenuen, baina joan zen urtean Paula Ferrandiz gailendu zen. Beraz, aurten txapela berreskuratu duzu.**

Beste urte batzuetan topera joan izan naiz Espainiako Txapelketa Absolutura, urrezko domina lortzeko borrokatzera, baina aurten nire helburua izan zen, batez ere, ongi pasatzea. Duela

bi urte lortu nuen, iaz ez zen atera, eta aurten bai. Urrezko bi dominez gain beste bi domina gehiago ditut, zilarrezkoa eta brontzezkoa.

**Getafen Katalunia taldeko Andrea Alarcon izan zen bigarrena (52,69 m) eta Tenerifeko Emma Garcia gaztea hirugarrena (49,74 m). Nola ikusi zenituen arerioak?**

Emma oso ongi aritu zen. Bere marka pertsonala horrenbeste hobetzea eta bat batean halako sorpresa ematea oso polita zela esan nion. Izan ere, jaurtiketak, eta neskenak batez ere, ez dira atletismoko beste proba batzuk bezain ezagunak, ez dute publikoan horrenbesteko atentzioa deitzen, eta halako sorpresak ongi etortzen dira. Asko poztu nintzen berarengatik, baina batez ere 2. sailkatu zen Andrearengatik. Andrea nire lagun minenetako bat da; atletismoan hasieratik elkarrekin egon gara eta harreman oso ona dugu.

**Pentsatzekoa da honekin nazioarteko probetan aritu ez izanaren arantza kenduko zenuela.**

Europako Txapelketetan ezin aritu izana kolpe gogorra izan zen, denboraldi guztia eten egin baitzen. Tokioko Olinpiar Jokotarako plaza lortzeko eskatzen zuten gutxieneko jaurtiketa egitea oso zaila zen, eta Tokion egon ahal izateko aukera bakarra podium batzuekin rankingean postuak lortzea zen, munduko 33 atleta hartzen baitituzte emakumezkoen diskoan. COVID-19arengatik Europako Txapelketetara joan ahal ez izatea, infekzioa pasata eta antigorputzak izanda, horrek asko izorratu zidan. Baina PCR-etan positibo ematen jarraitzen nuen, "infekzio iraunkorra" deitzen diotena dudalako. Eta denboraldiko helburu guztiak aldatu behar izan

nituen. Espainiako Txapelketa irabaztearekin nolabait arantza kendu dut.

**Grupompleo Pamplona Atletico taldekoek sekulako erakustaldia egin zenuten Espainiako Txapelketetan. Nafarroara 10 domina ekarri dituzue, eta tartean Asier Martinezek Tokiora joateko gutxieneko lortu zuen. Asko duzue ospatzeko.** Bai, sekulakoa izan zen. Nafarroan lortu ziren 10 dominetatik 9 Grupompleoko atletok lortu genituen eta bestea New Balance klubeko Sergio Fernandezek. Espainiako Txapelketetatik 10 domina ekartzea poz handia da, erakusten duelako Nafarroan atletismoa nolako maila dagoen eta atleta bakoitzak zenbat lantzen duen bere gorputza helburu horiek lortzeko. Ikusgarria izan zen Asier Martinez Joko Olinpikoetara joateko gutxieneko lortzen ikustea. Tokion egotea berearendako egia bihurtu den ametsa da. Gure klubekoa eta laguna delako, oso harro gaude berarekin.

**Uztailen udako azken proba jokatuko duzu, Federazioen Arteko Espainiako Txapelketa.**

Uztailaren 10ean eta 11n jokatu da, L'Hospitalet de Llobregaten. Orain arte nire kirol ibilbidean izango dudan udarik luzeena izango da hau, Joko Olinpikoak direnez, txapelketa guztiak aurreratu direlako. Uztailako azken bi asteak eta abuztu osoa izango ditut oporrak. Egia esan, Bakikura etorri eta oporrak hartzeko irrikaz nago.

**"LORTUTAKO 10 DOMINEK NAFARROAN ATLETISMOA NOLAKO MAILAN DAGOEN ERAKUSTEN DUTE"**

## Ruben Mendieta ongi Getafen

**ATLETISMOA** Grupompleo Pamplona Atletico taldearekin Getafen jokaturako Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutuetan lehiatu zen beste sakandarretako bat Ruben Mendieta Alegria izan zen. Olaztiarra 7. sailkatu zen 4x400 metroko erreleboetan, Lucas Moreno, Mikel Calvo eta Oscar Urdanoz bere taldekideekin batera. Lan ona egin zuten.



ESPAINIAKO FEDERAZIOA

## Ion Cerviño lotu du Xotak

**ARETO FUTBOLA** Ion Cerviño irurtzundarra 4 urte zituenean hasi zen Xotan, eta Imanol Arregirekin debutatu zuen talde nagusian. Egun, 18 urte ditu eta lau urteko kontratua sinatu du Xotarekin. "Oso pozik nago, harro. Esperientzia lortu nahi dut, eta, batez ere, disfrutat. Imanolen planetan sartzeko ahalegin guztia egingo dut" azaldu du atzelariak.



XOTA



Erregional mailako taldea talde gaztea da eta datorren denboraldian taldea indartzea da helburua, gora begira jartzeko. ALTSASU K.E.

# Urte borobil eta historikoa

**FUTBOLA** Altsasu Kirol Elkartean historia egin dute, jubenilen 1. mailako Altsasu Ohorezko Maila Nazionalera igo delako eta 2. mailako Altsasu 1. mailara igo delako. Erregional mailako taldeak itxura oso ona eman du, gainontzeko kategoriek bezala

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU  
Altsasu Kirol Elkarteak modu ezin hobean bukatu du 2020/2021 denboraldia. Duela bi asteburu jubenilen 2. mailako Altsasu futbol taldeak mailaz igotzea lortu zuen, eta datorren denboraldian jubenilen 1. mailan ariko da. Eta asteburu honetan jubenilen 1. mailako Altsasuk historia egin zuen kategoriaz igo delako, eta datorren denboraldian Ohorezko Mailako Jubenilen Maila Nazionalan ariko delako. Horretaz gain, talde nagusia, erregional mailako Altsasu, azken unera arte 3. postuan sailkatzeko borrokan egon zen eta itxura oso ona eman zuen. Eta baita gainontzeko kategoriak ere.

## Historikoa

Gorritxoak une gozoa bizitzen ari dira, eta datorren denboraldirako oso gogotsu daudela na-

barmendu du Altsasu Kirol Elkarteko futbol koordinatzaile Imanol Lobo Ieregik. "Denboraldi bukaera ezin hobea izan da hau, zalantzarik gabe. Sekulakoa izan da duela bi aste Arrotxapean 2. mailako jubencilak mailaz igotzea, arratsalde horretan bertan, Dantzalekun, 1. mailako jubencilak Oberenaren kontra igoera faseko joaneko partida irabaztea eta larunbatean, Oberenan, Maila Nazionalera igotzeko saria lortzea. Ospakizun bikoitza. Jokalariak, entrenatzaileak eta bereziki futbol zaleak eta altsasuarra zein pozik dauden, igo-

**"HISTORIKOA IZAN DA, HERRIRAKO BATEZ ERE; ZALEAK BETI EGON DIRA GUREKIN" IMANOL LOBO**

rafasean nola animatu gaituzten, hori izan da onena" dio Imanol Lobok. Orain arte Altsasuk ez du inoiz Jubenilen Ohorezko Maila Nazionalera igotzea lortu. "Historikoa izan da, baina ez soilik Maila Nazionalera igo garrelako, aldi berean 2. mailako taldea 1. mailara igo delako. Eta guztia denboraldi berean. Historikoa izan da guretako, baina batez ere herrirako. Zaleak beti gurekin egon dira eta hori izan da denboraldiko saririk onena" gaineratu du Lobok, hunkituta.

Jubenilen 2. mailako Altsasu taldeko entrenatzaileak izan dira Ivan eta Ander Claver. "Bospasei urte daramatzate klubean entrenatzaile lanetan, lan ona egiten" dio futbol koordinatzaileak. Eta jubencilen 1. mailako taldeko entrenatzailea Peio Goikoetxea urdiaindarra izan da, Imanol

Lobo bera laguntzaile duela. Jubencilen mailako bi taldeak laguntzen lan handia egin du Alberto Barrikartek. "Gertatu dena gertatzeko guztion lana oso garrantzitsua izan da" nabarmendu du Lobok.

## Apustua: talde erregionalak

Altsasuko Kirol Elkarteko futbol koordinatzailea eta jubencilen 1. mailako taldeko 2. entrenatzailea izateaz gain, Imanol Lobo erregional mailako talde nagusiko jokalaria da. Erregional mailan ere Altsasuk ez du denboraldi txarra egin, azkenera arte ligako 3. postua lortzeko borrokatzen aritu baitzen. "Justu mugan geratu gara, 4. postuan. Talde gaztea dugu, lan ona egin dugu. Itxura oso ona eman dugu, baina goian egon eta preferentera igotzeko punch hori falta zaigu. Datorren denboraldian igoera lortzeko apustua handia egingo dugu" dio Imanol Lobok. Urte luzeak daramatza Altsasuk erregional mailan, preferente mailara ezin igo. "Aurten genuen igoera fasera sailkatu eta igotzeko aukera ona, eta hor geratu gara, justu-justu. Etxetik kanpo ez irabazteak kondenatu gaitu. Baina etorriko da" espero du Imanol Lobok.

## Planifikazioa

Helburu hori lortzeko bidean, horren maila ona eman duten jubencilak talde nagusira igotzeko lagunduko du, baina jubencilen Maila Nazionalari eta 1. mailari eusteko ere lan handia egin behar da. Beraz, Imanol Lobok planifikazio lan handia du aurretik. "Agian 10-11 jubencil igo daitezke erregional mailara, eta kadetetatik ere jubencilak hornituko ditugu. Jubencilen taldeek indartsuak behar dute izan, Maila Nazionalan maila handia baitago; saltoa handia da, talde indartsuak baitaude bertan: Osasuna, Txantrea... Beraz, taldea indartu behar da. Agian jubencil batzuk puntualki erregionalan aritu ahal izango dira... ikusiko dugu. Horrek planifikazio lan handia eskatzen du, eta lizentziak eta bestelakoekin

**"SOILIK PENA BAT DUT, AURTEN NESKEN ERREGIONALA ATERA EZ IZANA" IMANOL LOBO**

oso adi egon behar dugu. Gauza asko daude aztertzeko eta lotzeko" dio futbol koordinatzaileak.

Berehala datorren denboraldia prestatzen hasiko dela gaineratu du. "Oberenan igoera lortu eta berehala, larunbatean bertan jokalariei esan nien aste bat opor hartuko nuela, eta berehala datorren denboraldiko planifikazioarekin jarriko naizela. Gogotsu gaude, eta ni halako saltsetan gustura ibiltzen naiz. Hortaz, jendearekin hitz egiten hasiko naiz, gure proiektura erakartzen, psikologo lanak egiten, entrenatzaileekin ordutegiak eta beste adosten... pozik egiten den lana da" dio irribarrez. Altsasu futbol taldea zainetan duela ezin du ukatu. "Gure herriko gauza bat da. Aitak urte asko egin zituen juntan, Iokin anaia egun Lagun Artean ari da baina Altsasurekin dago ere, eta ni hemen nabil" dio irribarrez.

## Otsailean hartu zuen kargua

Imanol Lobo otsailaz geroztik da Altsasu taldeko futbol koordinatzailea. Alfonso Castellanak utzitako hutsunea bete zuen erregional mailako futbolariak. "Alfonsok otsailean taldea utzi, eta bere lana egitera animatu nintzen. Altsasu kluba maite dut, kluba barrenean daramat, eta kluba sentitzen dudanez, ardura hori hartzea ez dut zama gisa hartzen. Eta bizi izan dugun guztia ikusgarria izan da. Igoeren saria jaso izana eta zaleekin poztasun hori konpartitzea izan da hoberena. Agian jokalaria gisa ez naiz aurreko urteetan bezain ongi ibili, baina hori hobetu behar dut, datorren denboraldian jokalaria eta futbol koordinatzaile izaten jarraituko dudalako" azpimarratu du Lobok.

Pandemiak 2020/2021 denboraldia guztiz baldintzatu du. Altsasu Kirol Elkartean 200 futbolari baino gehiago trebatzen dira, eta eskatutako osasun protokoloak betetzea eta guztia antolatzea zorramena izan da. "Lehenengo zatian Alfonso zegoen futbol koordinatzaile eta berak zehaztu zituen entrenamenduak eta ordutegiak. Otsailetik aurrera hasi ziren txapelketak, eta niri egokitu zitzaizkidan Nafarroako Federazioari informazio guztia pasatzea, lizentziak lotzea, taldeak eta partidak antolatzea, osasun protokoloak egokitzea... Nahiko gogorra izan zen, hasie-



Jubenilen 1. mailako Altsasuk historia egin du: datorren denboraldian Jubenilen Ohorezko Maila Nazionalen lehiatuko da. ALTSASU K.E.

ran batez ere, baina oso argi genuen denboraldia nola edo ahala aurrera atera behar genuela. Futbolearen disfrutatzen dugu, eta ez dugu ahaztu behar pandemian futbola arnagune bat izan zela, etxetik atera, kirola egin eta jendearekin biltzeko arnagune garrantzitsua" dio Imanolek.

### Harrobia

Altsasuk maila guztietan ditu taldeak. Guztira 15 talde dira. Gizonezkoetan aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurren mailako bi taldeak –batek 1. mailan jokatzen du eta 2. mailan besteak–, kadeteen mailako bi taldeak –batak 2. mailan jokatzen du eta besteak Kadete Kopan–, jubenilen mailako bi taldeak eta talde nagusia edo erregional mailakoa. Eta emakumezkoetan Futbol 8 taldea. "Kadete Kopa lehiaketa oso zaila da, talde garrantzitsuenak daudelako: Osasuna, Txantrea, Pamplona... talde horiek jokalaria asko dituzte, eta guk dugu duguna. Hala ere, ongi ibili dira kadeteak eta jubenilak zer esanik ez. Emakumezkoen dagokienez, Futbol 8ko taldeak denboraldi oso ona egin du. Ligaxkan bigarrenak izan dira, eta Kopan ongi ibili dira. Harrobi oso ona dugu. Soilik pena bat dut, aurten emakumezkoen Altsasu erregional taldea aritu ez izana. Hori da datorren denboraldiko helburuetako bat, talde hori berpiztea" dio Lobok. Baior da, Futbol 8 taldetik erregionalera lauzpabost jokalaria igoko direlako, eta duela bi denboraldiko Altsasuko emakumezkoen erregional mailako 10-11 jokalarirekin hitz egin dutelako. "Asmoa da taldea berpiztea eta lanean hastea. Behintzat, ema-



Jubenilen 2. mailako Altsasu taldea datorren denboraldian 1. mailan ariko da. ALTSASU K.E.

kume futbolariari aukera bat ematea eta jokalaria familia honetara etortzea" dio.

### Ongi, baina hobetu daiteke

Denboraldiaren balorazio ona egin du Lobok, baina hobetu daitekeela argi du. "Ni oso auto exigentea naiz, asko eskatzen diot nire buruari. Horregatik, alde batetik esango nuke denboraldia oso ondo egon dela, baina, bestetik, asko hobetu beharra dugula. Esaterako, jubeniletan igo gara, baina datorren denboraldian mantendu behar gara, eta hori lan oso gogorra da. Eta erregionalean, emakumezkoetan taldea berpiztu beharra dugu, eta gizonezkoetan taldea indartu beharra dugu" oso argi du Lobok.

Gizonezkoen erregional mailako taldea gaztea da, giro bikaina dute eta giro hori zelaira eramaten jakin dute. "Bai, naturaltasun hori. Lagunak gara, biltzen gara, enpatia dugu, oso

ongi funtzionatzen dugu... baina igoera lortzeko punch bat gehiago behar dugu. Eta hori da datorren denboraldirako helburu nagusia" berretsi du Lobok. Taldea ongi egoteaz gain, alde psikologikoa eta animoak alde izaitea zein garrantzitsua den gaineratu du. "Hori maila guztietan argi ikusten da. Eta ez dira soilik jokalaria ongi egon behar direnak; entrenatzaileak eta junta ere bai, eta zaleak zer esanik ez. Zaleek atzetik bulkatu behar dute. Helburu bat lortzeko gauza asko behar dira".

Eta horretarako datorren denboraldia prestatzen hasiko da berehala Altsasu Kirol Elkarteak. Oso animatuta daude. "Pandemiaren urtean denboraldia horren emaitza onekin bukatzea sekulakoa izan da, horrenbeste lan egin duten guztiendako sari ederra. Horrek asko animatzen du. Baina politena izan da berriro ere zaleekin eta jendearekin konektatzea, berriro ere

Dantzalekun zaletu pila bat biltzea taldea bulkatzen. Izugarri animatu gaituzte, eta oso berezia izan da. Nork pentsatu behar zuen saririk onena COVID-19ak ekarriko zuenik? Oso aurrera pauso handia izan da. Ea zer ekartzen duen denboraldi berriak, bihotz gorri hori gehiago indartzea espero dugu" opa du Imanol Lobok.

## GIZONEN ERREGIONALA INDARTZEA ETA EMAKUMEENA PIZTEA DIRA HELBURUAK

## "ERREGIONALEAN TALDE ONA DUGU, BAINA IGOTZEKO PUNCHA FALTA ZAIGU" IMANOL LOBO

## Altsasu 20/21

### Erregional taldea

- **Atezainak:** Adur Kanpo, Miguel Gómez eta Lucas Fernández.
- **Defentsak:** Gorka Martínez; Paulette Vergara, Haritz Goikoetxea, Aitor López eta Jon Lanz.
- **Erdilariak:** Jon Insausti, Jon Mendia, Aitor Flores, Imanol Lobo, Juan Bautista, Esteban Letona, Raúl Claver, Javier Guisado, Mikel Arellano eta Beñat Mendez.
- **Aurrelariak:** Eneko Vera, Javier Morras, Tasio Merchan, Urko Gartzia, Aitor Lara eta Eneko Garasa.
- **Entrenatzaileak:** Jose Luis Gomez Perez.

### Jubenilen 1. mailako taldea

- **Atezainak:** Ailetz Nuñez, Angel Bergara eta Eukene Martinez.
- **Jokalaria:** Patxi Arakama, Aimar Agirre, Eneko Galarza, Unai Rodríguez, Javier Díaz, Alain Dávila, Julen Flores, Julen Barreiro, Luken Landa, Unai Santano, Daniel Argüelles, Jose Luis Martin, Unai Irigoien, Jon Plissonneau, Jon Perez, Jon Lopez, Unai Calvo, Alex Santano eta Jeiro Maldonado.
- **Entrenatzaileak:** Peio Goikoetxea eta Imanol Lobo.

### Jubenilen 2. mailako taldea

- **Atezainak:** Patxi Bergera, Gorka Gasco eta Iker Lizarraga.
- **Jokalaria:** Luken Goikoetxea, Jon Cano, Asier Claver, Jon Navarro, Aritz Sevilla, Asier San Roman, Iraitz Moran, Lander Peral, Denis Ordoñez, Aingeru Goikoetxea, Enaitz Larrion, Txomin Rubio, Gaizka Martin, Igor Barriola, Hegoi Lakuntza, Aratz Imaz, Gorka Rubio, Saif Eddine eta Mikel Rodriguez.
- **Entrenatzaileak:** Ivan Claver eta Ander Claver.

### \* Altsasuko Kirol Elkarteak

**Junta:** Jesus Sayas presidentea, Jose Antonio Augusto idazkaria, Maria Eugenia Rosa diruzaina eta Claudia Cristina Vales, Rosa Melchor, Aitor Garcia eta Felix Mazkieran bokalak.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 2

**LAKUNTZA** Emakume langileon eskolak: **Emakumearen zapalkuntza dominazio kapitalistan.**  
18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** *Gozategi tour* kontzertua.  
20:00etan, lortia zabalgunean.

**BAKAIKU** Trasteando taldearen kalejira.  
20:30ean, plazatik.

## LARUNBATA 3

**ARBIZU** Alaitzen udako kultur egitaraua. Potxin eta Patxin pailazoak.  
19:00etan, plazan.

**ALTSASU** The Lio eta Sofokaos taldeen kontzertua.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 4

**ETXARRI ARANATZ** Artisau eta ekoizleen azoka.

10:30etik 14:00etara, plazan.

**ALTSASU** *Euskal Presoak Euskal Herrira* elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 5

**ALTSASU** Pentsiodun duinen aldeko elkarretaratzea.  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEARTEA 6

**ETXARRI ARANATZ** Etxarrin uda bizi. Zinema: *Tom eta Jerry.*  
22:00etan, eskolako patioan.

## ASTEAZKENA 7

**ETXARRI ARANATZ** Etxarrin uda bizi. Orientazio ginkana.  
19:00etan, plazan.

## OSTEGUNA 8

**ALTSASU** Gozamenez: Oihulari Klown-en *Hiri dantza*

**ikusbizuna.**  
18:00etan, lortia zabalgunean.


**ALTSASU** *Elvi Sabeliztuna*  
**ikusbizuna.**  
19:00etan, Dantzaleku igerilekuan.

**Oporren aurretik azkeneko Guaixe astekaria** uztailaren 30ean izanen da. Kurtsoko lehenengoa berriz, irailaren 3an.




## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 2




Larunbata, 3



Igandea, 4



Astelehena, 5



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Etxarri Aranazko Udalean aldi baterako idazkari lanpostua betetzeko deialdia:** Eskabidea uztailaren 7ko 14:00ak arte aurkez daitezke erregistroan (pertsonalki aurkeztuz gero) edo egun bereko 23:59ak arte (egoitza elektronikorekin bidez aurkeztuz gero). Deialdiaren oinarriak [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orrian, udal bulegoan eta Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.

**Berdintasun teknikariren lanpostuaren baina oposizio lehiaketa bidez betetzeko deialdia:** Aldi baterako lan erregimeneko B mailako lanpostua, C1 euskara mailaduna. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Sakana Mankomunitateko Erregistroan aurkeztu beharko dira edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz, gaur ostirala izena emateko azken eguna. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Irurtzungo Pikuxar taberna berriaren lan egiteko zerbitzari bila:** Tabernetako zerbitzari bezala esperientzia, euskararen ezagutza eta txandaka lan egiteko prestasuna beharrezkoak izango dira. Asteko 37 orduko kontratua edo asteburuetako kontratu partzialak eskaintzen dira. Interesatuak bidali [Cva.pikuxarberria@gmail.com](mailto:Cva.pikuxarberria@gmail.com) helbidera. Jasotako CV-ekin Lan Poltsa osatuko da.

## IKASTAROA

**Oinarriko gaitasun digitalak doako ikastaroa Irurtzunen:** Irailaren 20tik 24ra, goizeko 9:00etatik 14:15era. Kultur etxean. Informazioa eta izen ematea 948 600 412 tfnan.

## OHARRAK

**Irurtzunen Udako tailerra euskaraz:** Abuztuaren 2tik 13ra, 11:00etatik 13:00etara. 2009 urtetik 2016 urtera bitartean jaiotakoak barne. Bi talde egingen dira A eta D erduetan banatuta. Izena emateko epea uztailaren 15ean amaitzen da Martxuetan izena eman eta 20 euroak ere bertan ordaindu. Aizpea elkarteak antolatuta.

**Arakilgo Udako Aisialdi Kanpua:** Aurtengo egogora bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatuta dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda Uztailak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5-12 urte bitartean. Orduetgia goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Plana mugatuak direnez aukeraketa irizpideak honako hauek izango dira: 1. Arakilen errolatuak, 2. Arakilen bigarren etxebidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz, gaur ostirala izena emateko azken eguna. Informazio gehiago 634 584 223 telefonoan.

**Lakuntzako festetako zapien banaketa:** 2020 urtean jaiotako Lakuntzako errolatuak ez dauden haurrek jaietan zapi jaso nahi badute, udaletxean izena eman beharko dute, uztailaren 23a baino lehen.

**Iruñean Laba egitasmoa aurrera eramateko diru ekarpen bila:** Euskara eta euskal kulturarentzat gune bat sortzera doaz Iruñeko Gazteluko plazan; Kulturagune bat, topagune bat, sorgune bat eta denon ekarpenekin eraiki nahi da Laba egitasmoa. Diru bilketaz aparte partaide aktiboak bilatzen dira etengabe birasmazten den gunea izan dadin. Diru aportazioa egiteko sartu <https://labur.eus/itsulapiko> plataforman. Informazioa

gehiago lortzeko edo harremanetan jartzeko, kuxkuxeatu [www.laba.eus](http://www.laba.eus) web orria, eta twitter / Instagram [@abasarea](https://www.instagram.com/abasarea) kontuak.

**Erabilgarri ez diren erradiografien bilketa kanpaina farmazietan:** Nafarroako Farmaziarren Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmaziarik" GKE-k bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrek direlako eta bestalde, duten zilarren salmentarekin Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta beste-lakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

**Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daitezke:** Lakuntzako zita dutenak, 3. Irurtzunen errolatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen errolatuak 40€ eta ez errolatuak 50€. Izena emateko azken eguna uztailak 2. Informazio gehiago 634 584 223 telefonoan.

**1978ko sanferminak:** Sanfermin es 78 Gogoan! elkartek eta Iruñeko Peñen Federazioak elkarlanean gertaera haiei eta, batez ere, Peñen Ikerketa Batzordeari loturiko dokumentazioa eta informazioa berrikusteko proiektua martxan jarri dute. Gertaerekin loturiko informazioa eta, bereziki, Ikerketa Batzorde hark egindako lanarekin loturikoa bildu eta digitalizatzea da helburua. Ikerketa Batzorde harekin eta egun haietako gertaerekin loturiko informazioa eta/edo dokumentazioa duen pertsona guztiei haiekin harremanetan jar daitezten eskatu dute. E-postak: [federacionip@hotmail.com](mailto:federacionip@hotmail.com) edo [info@sanfermines78gogoan.org](mailto:info@sanfermines78gogoan.org).

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## JAIOTZAK

- **Intza Razkin Gartzandia**, ekainaren 23an Lakuntzan
- **Eyra Serrano Lopez**, ekainaren 25ean Etxarri Aranatzan

## EZKONTZAK

- **Julen Sorarrain Zubillaga eta Leire Goikoetxea Amarin**, ekainaren 26an Lizarragan
- **Alberto Martinez Muñoz eta Nora Diez de Arizaleta Gabirondo**, ekainaren 26an Iturmendin


## HERIOTZAK

- **Narcisa Goikoetxea Lanz**, ekainaren 23an Iturmendin
- **Manuel Fernandez Alejos**, ekainaren 23an Altsasun
- **Mikaela Zubillaga Poza**, ekainaren 24an Altsasun
- **Sotera Ongay Azpiroz**, ekainaren 25ean Ekain

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE  
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75  
[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)



## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:  
24,20 euro  
948 564 275

## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

## OROIGARRIA

Rodolfo  
Maiza de la Vega

'Txinbo'  
X. urteurrena

"Instant batez, eternitatea"

Loquillo

Urtziko kuadrilla



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

IRACHE  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Beietz! taldea. UTZITAKOA

## Zetik parranda hor egon da

Beietz! Talde arbizarra udako bira egiten ari da. Hurrengo kontzertua uztailaren 11n izanen da, Lakuntzan. 'Libre' abestia kaleratu dute ere, diskoaren aurrerapen kanta dena

### Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Beietz! Taldea 2018 urteko Arbizuko festetan aurkeztu zuten, eta 2019ko urte amaieran taldearen lehenengo diskoa kaleratu zuten: *Erraietatik*. 2020. urtean pandemia iritsi zen. Beraz, Hiart Leitza taldeko abeslariak esan duen bezala, "talde askori gertatu zitzaizen bezala, ez genuen aukera askorik izan diskoa zuzenekoetan defendatzeko eta aurkezpenak egiteko". *Stand by*-ean gelditu ziren. "Baina geldirik ez ginen gelditu". *Zetik parrandak* jarraitu zuen. Iaz kontzerturen bat egin zuten, eta aurten *Zetik parranda tour* egiten ari dira. Dagoeneko Irurtzunen eta Bakaikun kontzertuak eskaini dituzte, eta hurrengo Lakuntzako plazan izanen da, uztailaren 11n. Abuztuaren 19an Etxarri Aranatzen egonen dira, eta laster data gehiago konfirmatuko dituztela esan du Leitzak.

Bi lanak oso jarraian aterako dituzte. "Pandemiaren lehenengo hilabete horien ondoren lanean jarraitu genuen" eta bigarren disko prestatzen hasi ziren. Momentuz, abesti bat kaleratu dute eta datorren astean kantaren bideoa publikatuko dute. "Hortik gabiltza, gelditu gabe". *Libre* da abestia: "Bakoitzak, norberak, libre izate-

ko, pentsatzeko, sentitzeko eta maitatzeko duen" eskubidearen aldeko abesti bat da. "Askotan esaten dugu gizartearen berdintasuna lortu behar dugu, baina uste dugu berdintasun hori bakoitzaren desberdintasunak onartzea dagoela". Norberaren desberdintasunen alde egiten du abestiak. Abestia plataforma digitaletan entzungai dago, eta hurrengo diskoaren aurrerapen abestia da.

### Disko berria

"Diskoa prestatzen ari gara". Oraindik ez dute argitaratzeko datarik, eta egoeraren arabera disko izango da. Lehenengo aurrerapen abestia kaleratu dute, eta orain erabakiko dute gehiago kaleratu edo ez. "Ikusiko dugu". Garrantzitsuena lanean jarraitzen dutela da. Oraindik ezin dute data bat eman, baina "seguru aski uda amaieran" prest egongo da. Taldearen informazio guztia haien sare sozialetan jarrai daiteke.

**BEIETZ! TALDEAK  
'LIBRE' ABESTIA  
KALERATU DU, ETA  
BIGARREN DISKOA  
PRESTATZEN ARI DA**



**BAZTERRETIK**  
RICARDO ARETA  
URRESTARAZU

## Stradivarius

Hiru mende igaro dira jada Antonio Stradivari egindako instrumentuak bakar bihurtzen dituen sekretua ikertzen ari direnetik.

Stradivari, zalantzarik gabe, garai guztietako lutierrik ospetsuena da. Cremonan jaio eta hil zen, biolin ekoizpenean espezializatutako hiri italiarrean. 1700 eta 1725 urteen artean eraiki zituen tresnak dira preziatuenak; eta, gaur egun, biolin eta biolen artean 650 inguru direla kalkulatu da, Stradivariusen sinadura preziatua zeramaten 1.100 unitate inguruko ekoizpenetik konserbatzen direnak.

Asko dira benetako mito hau inguratzen teoriak, denak ikerketa zientifikoetan oinarritutakoak, denborarekin tresna hauen euro balioaren proportzio berean hazi diren elezaharrak adina.

Lehen teoria XIX. mendekoa da, eta Jacob August Ottok argitaratu zuen, Stradivariusen soinu nagusitasuna defendatzen duen lutier alemaniarrak; eta zura estaltzen

Bigarren diskoa laster argitaratzearren arrazoietako bat pandemia da; denbora gehiago izanda, abestiak sortzeko denbora tarte gehiago izan zutelako konfinamenduan. Pandemia egon izan ez balitz, "ez dakigu zer egingo genukeen", baina egoera dena dela, inspirazio iturri izan da urte hau. "Abestiak ez genituen orduan egin, baina bai hasierak. Ondoren, abesti horiek osatu ditugu". Letretan ere pandemiak eragina izango du.

Eta diskoa prestatzen duten bitartean, *Zetik Parranda* zenbait herritatik zabalduko dute modu berezian bada ere. "Ez daukate zerikusirik pandemia aurreko kontzertuekin alderatuta". Publikoak eserita egon behar du, "eta nabaritzen da". Arraroa egiten dela aitortu du Leitzak: "Gueszenatokian gaude mugitzen eta jendea eserita dago, geldi". Jendea adi dagoenez, "arriku hori egon daiteke ere, edozein akats egiten duzula...". Hala ere, gelditu daitekeen formatu bat dela esan du Leitzak. "Baita ordutegiak ere. Orain egunez eta arratsalde egiten dira, eta beste aukera bat da". Orduaren arabera elementu gehiago edo gutxiago erabiltzen dituzte taldeek, argiteria,

esaterako. "Beste ikuskizun mota bat da, azken finean". Taldeek egokitu beharko dute, eta dagoeneko ari dira. Esaterako, akustikoak egiten dituzte edo erreperitorio lasaigoak osatzen dituzte. "Guk momentuz ez dugu erreperitorioa aldatu. Betikoa da". Ikuskizun berdina eskaintzen dute.

### Esentzia

Beietz! Taldean aldaketak izan dira. Taldekide batzuk uztea erabaki zuten, eta beste batzuk proiektuarekin aurrera egiteko gogotsu zeuden. Beraz, taldekide berriak sartu dira. Zazpi kide dira, hasieran bezala. Taldekide berriak Tafallako Ainhoa Quintena akordeoilaria eta Mikel Goikoria biolinista dira. "Ainhoaren aita olaztiarra da eta ama bakaikuarra. Sakanarekin oso lotuta dago". Bateria Ricardo Areta lakuntzarraren egonen da, Peio Skalarik produktzio lana egingo duelako. Hiart Leitzak ahotsa jartzen du, Maider Jakak whistle-a jotzen du, Oihan Mendinueta gitarra eta Martin Larrazak baxua. "Taldearen musikak berdin jarraitzen du. Musika eta letrak pertsona berdinek egiten ditugu, beraz, berdina da".

duen bernizerako formula sekretuari egotzen dio. Teoria hori biltzen duen elezaharrak dioenez, berniz horren formula sekretuak heren-suge odola zuen, Marko Polok Ekialdeko palmera batetik lortutako substantzia gomatsu bat. Stradivari formula hori familiaren Bibliaren orrialde batean idatzi zuen, baina semeetako batek suntsitu egin zuen aitaren heriotzarekin, sekretua gordetzeko asmoz. Denborarekin eta aurrerapen teknikoek esker, frogatu da berniz on batek ez duela egurraren soinu kalitatea handitzen; berniz txar batek, ordea, okerragotu.

Beste elezahar batek dioenez, biolin horiek Stradivari ibai baten barruan aurkitu zuen zuhaitz baten zurarekin eraiki ziren, eta urte horietan guztietan, urarekin kontaktuan, zurak aparteko soinu-ezaugarriak hartu zituen. Hondoratutako itsasontzien kroskoko egurrak erabili zituela ere uste da.

Gaur egun gehien defendatzen den teoria Columbiako Unibertsitatearen eta Tennesseeko Unibertsitatearen artean garatu da. Bertan azaltzen denez, 1645 eta 1715 urteen artean, Europako zati batean, Maunders Gutxiene-

koa bezala ezagutzen den fenomeno bat gertatu zen, eguzki aktibitate minimo batez bereizten dena eta tenperaturetan jaitziera nabarmena eragiten duena. Bere garaian "izotz adin txikia" izena jarri zioten. Negu luzeek eta uda hotzek, urte horietan, hazkunde moteleko eta erregularreko zura sortu zuten, zuhaitzen enborretan eratzun estuak zituena. Ezaugarri hori, zur hori, instrumentuak eraikitze oso preziatua bihurtu zen.

2012an, Claudia Fritz akustikan adituak dastatze itsu bat antolatuta zuen, 12 biolinekin: 6 Stradivarius eta beste 6 eraikuntza modernoak. Momentuko biolin jotzaile handienetako 10 gonbidatu zituen. 12 biolinak ilunpetan eta sudurzuloak estalita probatu ondoren, galdera hau egin zitzaizen: biolin horietako zein eramango zenuke bira batera? Emaiz oso bitxia izan zen: batzuek biolin modernoak aukeratu zituzten, eta beste batzuek Stradivariusak, proportzio berean, eta, gainera, musikari bakar bat ere ez zen gai izan batzuen eta besteen artean bereizteko.

Beraz... Stradivarius, errealtatea ala mitoa?

# Kanpaldi nomada

Zirika Zirkus Irañetako konpainiak 'Hemendikara' ikuskizuna aurkeztu du. "Mundu osoko lau pertsonak" zirkua herriz herri eramanez dute. Helburua da Euskal Herrian, bere zentzu zabalenean, "koloretako jendea" bizi dela aldarrikatzea

## Erkuden Ruiz Barroso IRAÑETA

Ikuskizun berriaren karabana hainbat tokitan aurkezten ari direla konturatu dira haien lana nahiko "hemendik hara" dela ere. Eta, kasu honetan, "izenburua ere bada", aipatu du Ainhoa Juaniz Zirika Zirkus-eko kideak. *Hemendikara* ikuskizunean, hain zuzen, Euskal Herrian egonkor-tu den nomada talde bat da protagonista. Herri batean esnatu dira, eta bertan haien kanpalekua zabaldu dute "berriz" publikoa dutela baliatuz. "Badirudi pertsonaiak aurretik ezagutzen ditugula. Ez dakigu haien bizitzaren atzean zer dagoen, ikuskizun honetan ez dugu horretan erreparatu, baina ezagunak egiten zaizkigu".

Munduko toki askotatik etorritako lau pertsona dira: Parisetik etorritako Conchita Lamenhir, "jolasa egin dugu Menir euskal erara idazten delako"; Errumaniako Silvano Transilvano, "alias *el Conde*. Berak esaten du dei iezadazue Conde"; Andaluziatik etorritako María Magdalena de los Almendrales Ramírez Aguirregomezkorta, baina *Cup Kake* deitzen diote, "Mundutik etorritako pertsonak aipatzen ditugu: Frantziatik, Errumaniatik, Andaluziatik... argi utziz Euskal Herria ez dela Espainia. Nahita sartu dugu estatuko pertsona bat. Jendea ez da barrez hasten, baina bai nabaritzen dira irribarreak"; eta, bukatzeko, Pantx Errusiarra, "nire pertsonaia, normalean, oso antzekoa da beti: Pantxika, Pantxikoli, Pantxi. Euskal flekilloa eta errusiar moñoa daramatzadala diot, errusiar guztiek moñoa eramango balute bezala, baina, beno". Jon Maiaren hitzak erabili ditu Juanizek ikuskizuna definitzeko: "Euskal Herri berria



'Hemendikara' Zirika Zirkus en lan berria. LURI ANDERSON

garela esaten du, eta guk gauza bera esaten diogu publikoari: zuek eta gu Euskal Herria anitza gara. Gure herrietako kulturaren gauza onak eta zuen herriko kulturaren gauza onak hartuko ditugu". Esaterako, bat-batean bertso bat botatzen dute, irrintzi bat edo aurreku flamenko bat dantzatzen dute. "Pixka bat egiten duguna dena nahastea da".

## 'Hemendikara'

Zirku eta antzerki ikuskizuna da, baina aurreko ikuskizunekin alderatuta, Juanizek esan du desberdintasun nabarmenena dela zirku elementuak erabiltzen dituztela. "Mastila eta aroa ditugu, eta bi ikuskizun handi egiten ditugu. Aireko saiokak deitzen diete". Rulo saio "oso komiko" bat dagoela aipatu du ere. "Zaila da, eta oso altuan bukatzen dugu. Hara iristeko prozesua oso komikoa da". Ikuskizun dibertigarria baina zirku teknika asko dituen dela azaldu du Juanizek: "Antzerkia komikoa da, eta zirkua oso zirkua". Beste ikuskizunetan zirkua "kasualagoa" dela aipatu du.

Herri batean, egun batetik bestera, karabana bat agertuko da. "Jendeak esnatzen harrapatzen gaitu". Lehendabizikoa esnatzen Silvano Transilvano da, eta janaria prestatzen hasten da. "Teorian gosaria izan beharko zuen, baina, normalean, emanaldiak arratsaldean egiten ditugunez oso siesta luzea egin dugula dirudi". Malabare saio bat egiten du. Ondoren, beste hiru pertsonaiak ateratzen dira: "Esnatze bat da". Akrobazia bidezko esnatze bat. Gero, teknika antzekoarekin arropa jantzen dute eta eszenografia muntatzen dute.

Zirika Zirkus en lan berriaren beste berezitasun bat "behin eta berriro *estrenus interruptus*" dela da, Juanizek esan bezala. Hau da, mustutzea hiru alditan atzeratu behar izan dutela. Horrek bere alde ona eta txarra izan du: "Konturatu gara normalean baina gehiago egon garela entseatzeko. Normalean intentsiboagoa izan da, jarraian. Orain asteburuetan egon gara bakarrik". Formula hori ez da hain "erosoa". Denbora "pila bat" egon dira ikuskizuna prestatzen, "zaude zure arimaren eta guztiarekin". Entseguen artean "hiru edo lau egun" zituztenez, "osatzeko" aukera ematen zien. "Itzultzen ginen entsegura gauza pila bat aldatzeko aukerarekin". Iruditzen

zaie estreinaldira ikuskizuna "eginago" zegoenean atera direla: "Agian aurretik estreinatuta ere berdin egongo zen, baina hori iruditzen zaigu". Lana Etxarri Aranazko kultur etxean prestatu eta entseatu dute, "eta oso eskertuta gaude".

## Herri anitza

Euskal Herrian toki askotatik etorritako jendea dagoela irudikatu nahi zuen Zirika Zirkusek *Hemendikara* ikuskizunean. Sexualitatea ere lantzen dute, heteronormatismoa edo patriarkatua bezalako kontzeptuak lantzen dituzte. "Islatu nahi dugu Euskal Herrian zentzu guztietan koloretako jendea bizi garela. Denak gara hemengoak. Hori da adierazi nahi duguna". Modu askotara egin zezaketen, baina horrela atera zela azaldu du Juanizek. "Amaia oso dibertigarria zen frantsesez, frantsesa izango da; Silvano el Transilvano barregarria iruditu zitzaigun eta asko gustatu zitzaigun... berdin zitzaigun nongoak ziren". Oso egoera eta espazio desberdinetan eskaini dute, "eta emaitza oso ona izan da. Oso pozik gaude".

Estetika oso garrantzitsua da. Emir Kusturicaren *Gato Negro*, *Gato Blanco* edo Gora Bregovic-en *Tiempo de gitanos* bezalako pelikuletan oinarritu dira. "Kanpaldi nomada bat da, baina Euskal Herrian egonkortuta". Mezuak botatzeko "aitzakia" dela azaldu du Juanizek. "Naturaltasunetik. Gu horrelakoak gara. Zurekin kafe bat hartzen egongo banintz bezala adierazten dugu". Konpainia den bezalako dira ikuskizunak. "Esaten digutenean ikuskizun feminista bat ote dugun... gure ikuskizun guztiak dira feministak gu garelako feministak". Testua lantzen dutenean gaiak "modu naturalean" aldarrikatzen saiatzen dira.

Horregatik ere, ikuskizunean ez dira estereotipoak oso nabarmen agertzen. "Pertsonaiak dira bereziak propio dituzten berezitasunengatik, ez jatorriagatik. Amaiak eta biok hitz egiten dugu gehiago, eta berak G-a asko marikatzen du eta nik R-a".

**PROTAGONISTAK  
MUNDUKO TOKI  
DESBERDINETATIK  
ETORRITAKO LAU  
PERTSONA DIRA**

## 11 GALDERA



Feli eta Mari Carmen Imaz Biosca ile apaintzaileak.

# "Etxean bezala sentitzen zirela esan digute"

Feli eta Mari Carmen Imaz Biosca ile apaintzaileak dira, eta ekainaren 26an Altsasuko Travesia Intxostiako ile apaindegia itxi zuten. Josek, ahizpa gazteenak, estetika zentroarekin jarraituko du bertan

Alfredo A. I. / Erkuden R. B. ALTSASU

## 1 Zergatik ile apaintzaileak?

**Feli:** Ni hasi nintzen duela urte asko; ia ez naiz oroitzen ere. 16 urterekin hasi nintzen. Gustatzen zitzaidan. Garai horretan ez zegoen ia ile apaindegirik, baina nik gustokoa nuen.

**Mari Carmen:** Berari gustatzen zitzaion eta amak konbentzitu ninduen.

## 2 Gauza bat da gustatzea eta beste bat horretaz lan egitea.

**F.:** 16 urterekin beste ile apaindegi batean lan egiten hasi nintzen. Aurretik, oso gazte akademia batean ikasten egon nintzen hiru urtez. 19 urterekin gurasoek bajera hau erosi ziguten eta hemen egon gara 46 urtez.

**MC.:** Ni Bartzelonara joan nintzen akademia batera eta bertan ikasi nuen. Itzuli nintzen dena muntatuta zegoen. Urte asko dira. 17 urte nituen ireki genuenean. Gu 46 urte egon gara eta Josek, hemen gelditzen denak, 38 urte daramatza.

## 3 Zer nolako bezeroak izan dituzue?

**F.:** Ile apaindegi mistoa zen. Jende gaztea etortzen hasi zen, eta gurekin hezi dira. Helduak egin zaizkigu. Jende gaztea etortzen zen ere. Denetarik izan dugu.

## 4 Jendeari ilea aldatzea gustatzen zaio?

**MC.:** Aldatu behar zaie. Mozketak ikastaroak egin ditudanean, ondoren, animatu egin behar genituen. Ikusten dutenean gustatzen zaie. Azkenean, horregatik izan dugu beti lana. Ezin ginen betikoa egiten gelditu. Etengabe ikasten joan gara, gauza desberdinak ikasten. Badirudi adin batera iritsita ezingo dugula gehiago ikasi, baina, bai, beti ikasten da zerbait. Ikastaroak egiten asko ikasten duzu, baita gurekin lanean egon den jende gaztearekin ere. Gauza berriak ekarri dituzte. Oso eskertuta gaude gurekin lan egin dutenekin. Ilean egiten den lana oso garrantzitsua da. Ikusten den lan bat da.

## 5 Eta aldatzen dutenean, zergatik izan ohi da?

**MC.:** Lehenengo aldaketan beti animatu behar zaie. Gehien bat

adineko jendeari animatu behar zaio. Gazteei ez hainbeste animatuagoak direlako. Baina helduagoi animatu behar diezu aldaketa egiteko. Aurrekora itzultzeko aukera zegoela esan behar zenien, bestela. Baina aldatu behar da, garrantzitsua da ile apainketan aldatu nahi izate hori.

## 6 Eta mozketetan jendeak arriskatzten du?

**F.:** Denetarik egon da. Badago jendea bizitza osoan berdina joan dela, eta gero beste batzuk bat-batean guztiz aldatu direnak; gehiago arriskatzten dutenak. Azkenean, ilea hazten da. Beste edozein gauza izango balitz... baina ilea berriz haziko da.

## 7 Ez zenuten bakarrik ilea mozteten, ezta?

**F.:** Tinteak, ile bilduak, permanenteak... hainbeste urtetan denetarik egin dugu.

**MC.:** Gainera, Jose estetizista da ta hemendik zerbitzu osoarekin ateratzen ziren: burutik oinetara. Ile apainketa, makillajea, atzazkalak... dena egin. Elkarrekin lan egiten genuen.

## 8 Eta zergatik estetizista?

**MC.:** Josek estetika ikastea erabaki zuen, eta ile apaindegian tokia zegoenez, zentroa hemen jartzea erabaki genuen.

## 9 Ile apaindegira etortzea ohitura bat zen?

**F.:** Batzuentzako, bai. Batzuk astero etortzen ziren. Behar bat zen. Denetarik izan gara: gurasoak, psikologoak, medikuak... Jendeak denetarik kontatzen zigun.

**Jose:** Terapia bat bezala ere.

**MC.:** Orain itxi dugula jendeak esan digu etxean bezala sentitzen zirela. Urteak daramatzate etortzen eta pozik etortzen ziren. Guretako oso atsegingarria da. Aitorlekuak kendu zituztenetik apaizak bezala izan gara gu.

## 10 Konfiantza hori erakusteko ere balio behar duzu.

**F.:** Apaizak bezala zerbait kontatzen zigutenean niretako bertako gordeko dut. Hori oso ona da. Dena gordetzen genuen guretako.

**MC.:** Urte askotako konfiantza da. Horregatik oso ongi funtzionatu du ere. Ez da izan ile apaindegi bat non zuk ospa egiten zenuenean zuri buruz hitz egiten zen; oso erreserbatuak gara. Orain liburu bat idatziko dugu. Txantxa da, baina bitxikeria asko ditugu. Barre egitekoak, negar egitekoak...

## 11 Orain guraizeak ikusten dituzuenen, zer?

**F.:** Mozten jarraituko dugu; ama dugu, senarra, bilobak...

DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

[www.gkomunikazioa.eus](http://www.gkomunikazioa.eus)

